**EZTABAIDA:** *Hauteskundeak lehenbailehen egin behar dira?* /7

# Goienkaria



EGUBAKOITZA • 2001eko urtarrilaren 19a • II. urtea • 6. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a
**Disko Jartzaileak, rockaren izar berriak**

**KIROLAK**
**Elkoro, Etxaniz eta Zezeaga txapela Debagoienera ekarri nahian /10**

**EDORTA ARANA**
*"Euskal Herrian saltzen diren egunkarietan hutsaren hurrengo da euskara"* **/9**

## Patxi Basaurik 25 urte beteko ditu laster Elgetako alkatetzan

Alkatetzan horrenbeste urte eman ditzuten gutxi ezagutzen ditugu. Patxi Basaurik 25 urte beteko ditu aurki karguan. Datorren astean oroigarri bat jasoko du Eibarko alkatearen eskutik: "Elgeta eta Eibar anaiak izatearen ondorio da", esan digu Patxi Basaurik.

Berarekin berba egiteko aukera izan dugu, urte hauetan egindako lanaren gainean eta aurrera begira dituen asmoen inguruan ere. Berak dioen legez, "57 urterekin amaituko nuke Elgetan. Gero zer pasatuko den ikusi egin behar. Deskantsatzea gustatuko litzaidake eta atzetik datozenei lagundu. Beste alkate bat aukeratzea ez litzateke trauma izango niretzako, baina ikusi egin behar". **/4**



**Patxi Basauri.** IBAN ARANTZABAL

## Debagoieneko lehenengo jolasparkea Bergaran

Debagoieneko lehenengo jolas parkea Bergaran irekiko dute martxo aldera. Okipark izena izango du, eta umeak jolasteko guneak eta gurasoendako kafetegia izango ditu, besteak beste. 110 umerendako tokia izango du. Ekimena pribatua da eta bi bergararrek jarriko dute abian. Hasieran, Arrasaten irekitzea pentsatu zuten arren, Bergaran zabaltzea erabaki dute. **/4**






**'BEHI EROEN' KONTUAK EZ DU ERAGIN HANDIRIK IZAN SALMENTETAN**

# Bailaran ez dute gaitz hori antzeman

*Behi eroen* auziak merkatua ez ezik politikagintza ere astindu du. Gaitza antzemateko frogak orain dela hamabost egun hasi ziren egiten Euskal Autonomi Erkidegoan. Zubillagako hiltegiko abelburu batzuk ere aztertu dituzte. Gaiaren inguruko erreportajea landu dugu: Jaurlaritzaren, nekazarien ordezkarien eta bailarako harakinen iritziak jaso ditugu. **/2-3**



**Zubillagan hiltzen dituzten abelburuak Derion aztertzen dituzte.** ENEKO AZKARATE

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • SAILKATUAK/8 • KIROLA/10-11 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAKUA/19 • AISIALDIA/22 • TELEBISTA/23

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko urtarrilaren 19a

# Behi *eroak*

## Gure bailaran ez dute gaitz hori duen behirik aurkitu



Zubillagako hiltegian betiko martxan ari dira lanean egun hauetan.

ENEKO AZKARATE

MARIJO DEOGRACIAS

Joan den astean zortzi behi hil zituzten Debagoieneko Mankomunitatearen hiltegian. Eusko Jaurlaritzaren aginduei jarraituz, behi horien buruak Derioko Neiker laborategietara eraman zituzten. Han *behi eroen* gaitzaren testa egiten dute. Gutxienez, hogeita lau ordu behar izaten dituzte froga horren erantzuna jakiteko. Debagoieneko Mankomunitateko hiltegian adierazi digutenez, bi egun geroago jakin zuten zortzi behi buru horiek ez zutela gaitzik. Ondorioz, hozkailuetan gordetako zortzi behien okela hiltegitik ateratzeko baimena jaso zuten.

Aste honetan, astelehen eta martitzenean, 84 abelburu hil dituzte hiltegian. Eta prozesu bera jarraitu dute. Entzefalopatia espongiforme gaitza duten jakiteko, behi buruak Deriora bidali, eta bitartean, gorputzak hiltegiko hozkailuetan gorde.

Europar Batasunaren arabera, uztailean hasi beharko lirateke *behi eroen* gaitza antzemateko frogak egiten, baina Eusko Jaurlaritzak urtarrilean bertan hastea erabaki zuen. Iñaki Gerenabarrenak GOITBn adierazitakoaren arabera, "esku artean ditugun neurri guztiak jarriko dira gure behiak ondo daudela erakusteko, baina argi izan behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko hiltegietan ez dituztela bakarrik hemengo behiak hiltzen; kanpotik ekarritako eta hemen hazitakoak ere hiltzen dira". *Behi eroen* gaitza antzemateko frogak hogeita hamar hilabetetik gorako behiei egiten dizkiete, baina hogei hilabetetik gorakoei ere hasiko ei dira egiten, "neurri guztiak hartu behar direlako".

Euskal Autonomia Erkidegoan *behi eroen* gaitzaren froga egiteak dakarren kostua Eusko Jaurlaritzak hartu du bere gain. Debagoieneko Mankomunitatearen kasuan, 30 froga egiteko dirua eman du astero, baina batez beste 18 behi baino ez dituzte hiltzen Zubillagako hiltegian.

## *'Behi eroen' auzia dela eta, eraginik igarri duzu?*

### Jabier Errasti

ELGETAKO HARAKINA

Jabierrek ez du *behi eroek* sortutako alarma egoera igarri: "Gurean erosten dutenek badakite gure okela bertakoa dela. Geuk hazitakoak edo herriko baserritarren behien okela saltzen dugu harategian. Entzun dut gure ondoko herri batzuetan eragina izan duela, baina zorionez, eta gure bezeroak fidelak direlako, ez dugu apartekorik igarri.



### Anton Garai

OÑATIKO HARAKINA

Kokoteraino nago *behi eroen* auziaz, inortxok ere ez daki ezer eta guztiek dute zerbait esateko.

Hasteko, jendeak ez du behi okelarik jaten, txahala jaten da. Txahalak 10-12 hilabete izaten ditu eta behiak 30etik gora, beraz, ez dago arazorik. Oñatin inork ez du behirik saltzen.



### Ramon Bengoa

ARETXABALETAKO HARAKINA

Nik ez dut salmentetan eraginik igarri. Hala ere, Gabonetan beti igotzen da beste okela batzuen salmenta, baina hori urterokoa da. Nire ustez, psikosi pixka bat dago horren inguruan. Jendeak komentarioak egin izan ditu, baina nire bezeroek badakite nondik ekartzen dudan okela.



### Ander Landaluze

ARRASATEKO OKELA SALTZAILEA

Jendeak okela gutxiago erosten du, batez ere ministroak esan zuena kontuan izanda. Hezurra eskatzeko ere errepareokin ibiltzen dira... Oilaskoa, txerri okela, untxia, bildotsa... gehiago saltzen da eta prezioek ere gora egin dute. Oilaskoa, esate baterako, 100 bat pezeta igo da.



### Pello Urtzelai

BERGARAKO HARAKINA

Jendeak orain arte pentsatu izan du okela guztiak berdinak zirela. Beste produktu batzuk gehiago identifikatuta daude, markagatik edo. Joko zikina egon da. Marka jakin bateko jertse bat erosten duzunean, eskaintzen dizun kalitateagatik aukeratzen duzu, baina gero ez dadila tranparik egon.



# "Ziurta genezake gure okela garbi dagoela"

**Espainiako Nekazaritza ministroak esan zuen salda egiteko ez erabiltzeko behi hezurrik. Horren aurrean, zer?**

Ministro batek ezin du esan horrelakorik, batez ere bere ministeriotik osasun erregistro bat ematen denean.

**EAEn egindako azterketetan ez da gaitzik agertu?**

Ez, eta gure lana egiten ari gara; eta ziurtatzen ari gara gure elikagaien katean ez dela sartuko animalia gaixorik.

**EHNE sindikatuak esan berri du gaitza duten behiak hemen ere agertuko direla.**

Ager daitezke, hemengo behiak eta kanpokoak hiltzen ditugu eta. Euskal Herriko okela hemen jaio, hazi eta hil dena da, eta beste gauza bat da kanpoko okela. Gure ustez, errazagoa izango da hemengoa ez den okeletan agertzea gaixotasuna, baina horrek ez du esan nahi guri ezin zaigunik gertatu. Azken baten, Europako gaixotasun bat da eta gu Europan gaude. Baina, zer edo zer egotekotan, harrapatuko dugu. 30 hilabetetik gora duten behi guztiak aztertzen ari gara eta ziurta genezake gure hiltegitik ez dela atera animalia gaixo bat bera ere ez.



E. OTXOA

IÑAKI GERENABARRENA

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburua

**"Okelaren kontsumoak behera egin du, baina labelduna gehiago saltzen da"**

***Behi eroen* gaitzaren inguruan oraindik informazio gutxi dago.**

Badakigu gizakiok harrapa dezakegula gaixotasuna okela txarra janez gero. Nondik edo zergatik agertu den, ordea, ez dakigu. Pentsuak, mutazio genetikoak... denetik esan da, baina ziur ez dakigu nondik. Baina, neurriak hartzen ez baditugu, arriskua areagotu daiteke. Neurriak hartu ditugu eta ziurta genezake gure okela garbi dagoela eta lasai jan dezakegula.

**Hala ere, saltzaileek beherakada igarri dute salmentetan.**

Egia da okelaren kontsumoak behera egin duela, baina labeldun okelak gora egin du. Urteak daramatzagu kalitatearen alde lanean: labelaz zazpi urte daramatzagu.

**Zein gomendio emango zenieke kontsumitzaileei?**

Lasaitasuna izan dezatela. Arrisku txiki bat badago, baina Jaurlaritzak eskuetan dituen neurri guztiak jarri ditu eta harategietan dagoen hemengo okela sano dago.

# "Kalitatea eskatu, ez bakarrik hitzez"

**Harakin batzuek behi okelaren salmentak behera egin duela diote. Psikosia zabaldu da kontsumitzaileen artean?**

Hainbeste zalapartarekin jendea kezkatuta eta larrituta dago eta psikosi hitza erabil daitekeela uste dut. Hala ere, osasuna guztiaren gainetik egon behar da eta arazoaren zuztarrari eutsi beharko genioke.

**Zer eskatzen dio EHNEk Eusko Jaurlaritzari?**

Ikusi dugu testak egiten hasi direla, Bruselak agindutakoa baino lehen. Zenbat eta kontrol zorrotzagoak, guretako hobeto. Eta ondo ikusi dugu pauso hori. Baina, kezka batzuk baditugu: arriskudun material horiek deuseztea, etxean hildako ganadua desagertaraztea... Horrek kostu batzuk sortzen ditu. Halako krisi batek eragin zuzena dauka ekoizleengan.

**Zeintzuk lirateke, beraz, behi hazleen kezkak?**

Kezkarik handienak dira kostuak, prezioak eta kalitate ziurtagiriek sortzen dituztenak. Baserritarrek agiri asko sinatu behar dituzte eta une bat heltzen da eskatutako guztia ezin duzula ziurtatu, ez dakizulako.



MAITE ARISTEGI

EHNEko idazkari nagusia

**"Honek balioko digu etorkizunean beste produkzio sistema batzuk bultzatzeko"**

**Euskal Herriko behi okela sano dago?**

Sistema produktibo egokia eraman duenak konfiantza handiagoa ematen du, ze itxura denez, produkzio sistema txar batetik eratorritako gaitza da hau. Hemengo sistema lurrari lotuagoa eta orekatuagoa da, eta horrek konfiantza handiagoa ematen du. Baina, merkatu globalizatuan zalantzak beti sortzen dira. Hala ere, honek balioko digu etorkizunari begira beste produkzio sistema batzuk bultzatzeko. Gainera, etiketatu garbi bat egon behar da behia non hazi, non gizendu, non hil eta zelan hazi den esaten.

**Zer esango zenieke kontsumitzaileei?**

Informa daitezela erosteko orduan. Galdetzeko eta kalitatearen alde egunero egiteko. Gure herrietan nahiko erraza da hori, beraz, kalitatea exigitzeko ez bakarrik hitzez, baizik eta ziurtagiriekin ere. Ganaduzaleok bakarrik ezin dugu konpondu, baina aprobetxatuko dugu krisia aukera historiko bat bezala eta kalitatearen alde lan egiteko.

## Bailaran, labur

ELKARTASUNA

### Eskola materialez betetako 50 kaxa Debagoienetik Irakera

Irakiarren kontrako enbargoa dela eta, arkatzak eta, oro har, beste mota batzuetako eskola materiala biltzeko Komite Internazionalistak taldeak antolatutako kanpaina arrakastatsua izan da Debagoienean. Hitzaldiak antolatu dituzte hainbat herritan, eta material bilketa Oñatin. Guztira, 500 kilo batu dituzte Irakera bidaltzeko. Folioak, koadernoak, bolalumak, 6.000 arkatz..., 50 kaxa. Arkatzek duten grafitozko minak lehergaiak egiteko erabil daitezkeelakoan, Ameriketako Estatu Batuak eta Britainia Handiak, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren bitartez, debekatu egin diote Iraki arkatzak erostea. /ENEKO AZKARATE

LURRIKARA

### El Salvadorren kaltetutakoendako diru laguntzak bideratu nahi dituzte

El Salvadorreko lurrikarak eragindako kalteei aurre egiteko, diru laguntzak bideratuko ditu Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza batzordeak. Gobernuz kanpoko erakunde horretako ordezkaria Mila Andueza bergararra da, eta bere anaia Mikel Andueza domingotarra El Salvadorren dago. Honek *Goienkaria*ri esandakoaren arabera, "presazkoena komunitateetara janaria eramatea da: artoa, arroza, indabak, esnea, olioa... Horren ondoren, zink xaflekin egindako behin-behineko etxeak eraiki behar dituzte. Gutxienez, bi edo hiru urte iraungo duten etxeak". Laguntza eman nahi dutenendako, hiru kontu korronte zenbaki ireki dituzte. Informazioa 943 76 04 20 eta 943 76 17 28 telefonoetan (Mila Andueza). /E. A.

KALE ERASOAK

### Arrasateko zinegotzi sozialistaren autoaren kontrako erasoa salatu dute

Arrasateko Udalbatzarrak Paco Garcia zinegotzi sozialistaren autoaren erreketa salatu du. Joan zen eguenean, Paco Garciaren autoa kiskali zuten hiru kaputxadunek Arrasateko San Andres auzoan. Horren aurrean, besteak beste, osoko bilkura berezia deitu zuen udalbatzarrak astelehenean, eta hantxe aurkeztu eta onartu zuten PSE-EEren mozioa. EHren kontrako botoarekin eta beste alderdi guztien aldekoekin. Mozioan, besteak beste, Paco Garcia beste edozein herritarren modukoa dela aipatu zuten. "Desberdintasun bakarra da bera sozialista dela eta askatasunaren, bakearen, tolerantziaren eta elkarbizitzaren defendatzaile sutsua". /UBANE MADERA

EUSKALKIA

### Badihardugu euskara elkarteak batzar orokorra egin zuen zapatuan

Badihardugu euskara elkarteak batzar orokorra egin zuen joan zen zapatuan Oñatin. Guztira, 35 lagunek parte hartu zuten bileran. Deba arroko euskalkia batzeko ahaleginetan, idazteko oinarrizko ortografia eta morfologia arauak adostu zituzten. Datozen hilabeteetan, berriz, sintaxia, aditza eta lexikoa ere landuko dituzte. Asmoa ez da bailarako euskalki batua sortzea, baizik eta euskalki bakoitza zuzen erabiltzeko oinarrizko arauak finkatzea. /GORKA ETXABE

LANA

### Bergarako Mayc-eko langileek lanuzteak egin dituzte aste honetan ere

Atzo, eguena, zortzi orduko lan-etena eta manifestazioa egin zuten Bergarako Mayc-eko langileek. Zuzendaritzarekin egon diren arren, ez dute akordiorik lortu: Lan-egutegia negoziaezina da zuzendaritzaren ustez; ondorioz, langileek Prekora jo dute. Distribuzio berrien aplikazioa negoziatzeko asmorik ere ez du oraindik azaldu zuzendaritzak. Plangintza industriala, aldiz, jakinarazi diete langileei. /MONIKA BELASTEGI

ELGETA 25 URTE ALKATETZAN

## Patxi Basauri/ Elgetako alkatea

# *"Etorkizunari begira jokatu dugu eta 15 Km-an 200.000 biztanle garela pentsatuta. Perspektiba handia du Elgetak"*

IBAN ARANTZABAL

**25 urtek askotarako ematen dute, eta eman dutenaz oso pozik dago Patxi Basauri: "57 urterekin amaituko nuke Elgetan. Gero zer pasatuko den ikusi egin behar. Deskantsatzea gustatuko litzaidake eta atzetik datozenei lagundu. Alkate berri bat ateratzea ez litzateke trauma bat izango niretzako, baina ikusi egin behar".**

**Hurrengo astean oroigarri bat eman behar dizu Eibarko alkateak alkatetzako 25 urteengatik.**

Elgeta eta Eibar anaiak izatearen ondorio da. Eibarrekin hartu-emana beti egon da eta galdu ere egin zen arren, orain berriz hartu-emana errekuperatua dago.

**Alkatetzan sasoi onak eta txarrak izango ziren...**

Txarrena lan-krisia izan da, penagarria zen plaza barrenean jendea aurrera eta atzera ikustea; dena dela, orain, jendeak lana badu eta sasoi txar horiek hobetu dira.

**Beti ez duzu EAJ ordezkatu. Nolatan orain EAJn?**

Ni lau eratara naiz alkate: hasieran, Madril inguruko jendea begibistatik kentzearren, popular eran egin nintzen alkate, jendeak bultza eginda. Independente moduan ere aurkeztu ginen, eta beharbada hori izan zen sasoirik onena. EAJ, EE eta HB inguruko jendea geunden eta beti jartzen ginen mahaian. Kapazitatea izan genuen eztabaidatu eta akorduak aurrera ateratzeko. Alkatetza lagatzea pentsatu eta azkenengo momentuan EAJkoak etorri zitzaizkidan berriz alkate izateko proposatzen eta baietza eman nuen. Horrelaxe bete ditut 25 urte.

**Gaur egungo politikak erakartzen zaitu edo herrigintzak du pisua zure jardunean?**

Udaletxearen eguneroko zereginen%90ean herriarekin pentsatzen zaude. Partiduak ez nau kondizionatzen eta hala balitz, mahai gainean utziko nuke partiduaren kredentziala.

**Futboleko entrenatzaileak sarri-sarri aldatzen dira, izan ere, 25 urtean aulki berean jarrita egonda bizioak hartuko lirateke...**

Entrenatzailea gaizki dabilenean aldatzen da eta momentuz, herriak ez du aldatu. Gauzak gaizki edo ondo egin daitezke, bai lau urtean eta bai 25 urtean; dena dela, proiektuak egin eta abian ipintzeko denbora behar da. Nik epe luzera egiten ditut gauzak eta hori da egokia. Beharbada, beste alkate bat ere ez litzateke gaizki egongo, baina ikusi egin behar.



Patxi Basauri, Elgetako Udaletxeko bulegoan. IBAN ARANTZABA[L]

BERGARA JOLAS PARKEA

# Umeendako Debagoieneko lehenengo jolasparkea irekiko dute

### *400 metro koadro eta 110 umerendako tokia izango du*

MONIKA BELASTEGI

**Okipark izena izango du, eta umeek jolasteko guneak eta gurasoendako kafetegia egongo dira. Ekimena pribatua da eta martxo amaieran irekiko dute.**

Bi bergararrek jarriko dute abian: Esther Ruizek eta Jaione Lopezek. Umeendako Debagoieneko lehenengo jolasparkea izango da, eta 110 umerendako tokia izango du. Hasieran Arrasaten irekitzea pentsatu zuten arren, Bergaran zabaltzea erabaki dute: "Debagoienaren erdian dagoen herria izanik, leku estrategikoagoa dela iruditzen zaigu".



Okipark Amillaga auzoan egongo da. IATren parean. MONIKA BELASTEGI

**ADINAREN ARABERAKO BANAKETA**

400 m²ko zabaleran bi eremu izango ditu: batetik, biltegia, kafetegia eta harrera bilduko dituen 200 m²; gainerako 200 m²etan umeek jolasteko gunea.

Jolasetarako gune horretan bi eremu banatuko dituzte, umeen adinaren arabera: 0-3 urte artekoendako bat eta 3-12 urte artekoendako beste bat. Txikienen gunean 25 m² izango ditu, eta igerileku txiki bat eta beste hainbat jolas. Nagusiagoenak, berriz, 100 m² izango ditu, eta hantxe bi igerileku, ohe elastikoa eta beste hainbat jolas ipiniko dituzte. Zerbitzu berezi gisa, gurasoek seme-alabekin jolasteko egun bat egongo da.

Asteko zazpi egunetan egongo da irekita, goizeko 10etatik gaueko 9etara. Sarrerari dagokionez, ordubete 600 Pta izango da. Hortik aurrerako orduak 450 Pta. Meriendak ere emango dituzte, eta 1.200 pezetaren truke umeek arratsalde osoan egoteko aukera izango dute.

ARETXABALETA ELIZAREN ALDEKO DIRU BILKETA

# Atxabaltarrek 28 milioi eman dituzte eliza konpontzek[o]

### *Kanpoaldeko lanak, atzerapenarekin, baina hilabete honetan bukatuko dituzte*

AMAGOIA LASAGABASTER

Aurrera doaz Aretxabaletako Andre Mariaren Zeruratze Parrokiako berrikuntza lanak. Izan ere, konponketak egiteko beharrezkoak ziren 30 milioietatik, 28 batu dituzte dagoeneko. Azken hilabetean egindako ekarpena zazpi miliokoa izan da.

Bestalde, dirua bai, baina konponketa lanek atzerapen handia izan dute. Azaroan eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta lehenengo aldiko berrikuntza lanak hilabeteko atzerapenarekin doaz. Orain arte, teilatuko habeak eta oholeria guztia aldatu, egurrezko egitura tratatu eta teilatu berria jarri diote elizari.

Horrez gain, kanpoaldeko hormak garbitu dituzte. Elizako arduradunaren esanetan, oraindik, txukunketa ugari egin behar dituzte, eta barrualdeko lanak ez dira otsaila arte hasiko.

**Zertzelada**

**Elizako arduradunaren esanetan, oraindik, txukunketa ugari egin behar dituzte, eta barrualdeko lanak ez dira otsailera arte hasiko.**

**AUZO ELIZETAN ARAZOAK**

Azken hilabeteotako haize bo[r]titzek hainbat kalte eragin ditu[z]te auzoetako elizetan. Galartza[]ko, Azatzako, eta Larrinuko eli[]zek jasan dituzte, besteak beste[,] kalteak. Hiruretan haizeak teila[k] altxatu ditu. Teknikariak egin[]dako txostenaren arabera, ez dir[a] kalte larriak izan, baina hala ere[,] lehenbailehen eskatuko diot[e] Gipuzkoako Foru Aldundiar[i] konponketa lanak egiteko.

Koruetako elizan, bestalde[,] pipien ondorioz erretaula hon[]datzen ari da. Horregatik, ast[e] honetan bertan aldamioak jar[ri] dituzte, Gipuzkoako Foru Aldundiko tekni[]kariak zelan dagoen ikus dezan. Izan ere[,] Foru Aldundiaren ardura dira auzo eliz[ak] guztiak.

Elizaren berritz[e] lanek 10 milioi ingu[]ruko aurrekontu[a] izango dute. Orain[] diru laguntzak bide[]ratu eta lanak lehen[]bailehen hastea gera[]tzen da.

**ARAMAIO** IKERKETA BEKAK

# Aramaioko euskara, kondaira eta mitoak jasotzeko lanean ari dira

UBANE MADERA

Barandiaranen galdetegi bat oinarritzat hartuta, Aramaioko kondaira, mito eta hizkera jasotzeko lanetan ari dira pasa den abuztuaz geroztik.

Dozena erdi lagunek inguruko etxe, baserri eta mendietarako bideak hartu eta geure arbasoek utzitako ondarea berreskuratuko dute.

Bereziki, 70 urtetik gorako aramaioarrekin ari dira berbetan eta abadeen laguntza ere izango dute, hauexek dute-eta aspaldiko kontuen berri.

**EUSKARA ETA KONDAIRAK**

Bi taldetan banatuta, alde batetik, herriko ipuin eta kondariak batzen ari dira. Bide batez, informazio hori batzeko orduan entzundako euskarazko esapide, esamolde eta antzekoak ere berreskuratzen ari dira.

Bestalde, bigarren taldearen lana euskararekin lotutakoa da. Euskara ondare filologiko moduan hartuta, Aramaioko berba egiteko modua jaso nahi dute.

Txema Abarrategi kultura zinegotziak adierazi digunez, ondoren, bi taldeen emaitzak liburu baten batzeko asmoa dute. Udaberri ingururako ikusiko duargia.

Lan hau egiteko, Aramaioko Udalak bi beka atera zituen; bien artean, ia milioi bat pezetako inbertsioa egingo du.

**ARAMAIOREN INGURUKO WEB ORRIA PRESTATZEN**

2000. urterako prestatutako egitasmoaren barruan sartzen dira bi beka hauek. Horrekin batera, baserrietan eta ermitetan plakak jarri dituzte, karobiak konpondu eta Aramaioko jolas eta jokoen gaineko liburu bat idazteko lanak ere egin dituzte.

Aurrera begira, bestalde, Aramaioren inguruko web orri bat ateratzeko asmoa ere badu udalak. Geroago etorriko da hori.

> **Zertzelada**
>
> **Ondarea berreskuratzeko, 70 urtetik gorako aramaioarrekin ari dira berbetan eta abadeen laguntza ere izango dute, hauexek dute-eta aspaldiko kontuen berri.**

**ARRASATE** LARRIALDI PLANA

# Legeak behartuta, larrialdi plana zehaztu da Mondragoerako

*Larrialdi bat gertatzen denean herritarrek udaletxera deitu behar dute*

UBANE MADERA

Arrasateko Udalak badu larrialdi plan bat, edozein ezbehar handi gertatzen denerako. Herritarrei zer egin, nora jo eta antzeko argibideak ematea da egitasmoaren helburua.

Izan ere, legeak dio 20.000 bizilagun baino gehiago dituzten herriek larrialdietarako plan bat izan behar dutela derrigorrez, zer gerta ere. Hori dela eta, Mondragoek bere egin du, herriko udaltzaingoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailarekin elkarlanean.

Plan horrek Mondragoeren gaineko informazio eta argibide guztiak ematen dizkio Jaurlaritzari. Horrela, zerbait gertatzen bada, Jaurlaritzak berehala jakingo luke zein lekutan gertatu den, zenbat jende bizi den inguruan... eta zein motako erantzuna eman behar zaion larrialdiari.

**ARRISKU TOKIAK**

Larrialdi planean lantzen den txostenak zehaztu egiten ditu arriskua izan dezaketen tokiak: dantzalekuak, zinematokiak, pilotalekuak eta hainbat fabrika, jarduera arriskutsua izan dezaketenak, hain zuzen. Baita gasolina zerbitzuguneak ere. Babesa non hartu ere zehaztuta dago: Musakolako eta Iturripeko kiroldegiak, eskolak eta ikastolak eta Monterron jauregia, esaterako.

Zerbait gertatuz gero, horri aurre egiteko Larrialdi batzorde bat ere eratu da. Alkatea da batzorde horren buru, baina berarekin batera idazkaria, udaltzainburua, alkateordea eta zerbitzuburua daude, besteak beste.

Larrialdi planean zehazten denez, larrialdi bat gertatzean, herritarrak lehendabizi udaletxera deitu behar du, horrela, han gertatutakoaren jakinaren gainean egongo dira eta erantzun bat eman ahal izango diote.

Horrez gain, komunikabideetan arreta berezia jartzeko ere aipatzen da, irratian, bereziki, horrelakoetarako medio azkarrena da eta. Izan ere, udalak tresna horiek erabiliko ditu etengabeko informazioa emateko.



**Besteak beste, kiroldegia babesleku izango da larrialdietan.** UBANE MADERA

**OÑATI** SENIDETZEA

# Ikasleak Chateaubernard, Oñatirekin senidetutako herria, bisitatzera

*Sei egun pasako dituzte hantxe, eta otsailean, berriz, hango ikasleak etorriko dira herrira*

AINTZANE IRIZAR

Datorren astean, hilak 23, abiatuko dira Oñatiko 45 neska-mutiko Chateaubernard aldera. Txantxiku ikastolako eta Aozaraza ikastetxeko ikasleak guztiak, frantsesa ikasten dihardute. Horrela, hango jendea ezagutu eta inguruak bisitatzeaz gain, frantsesa praktikatzeko aukera ere izango dute. Hantxe igaroko dituzten sei egunetan Chateaubernard eta inguruetara hainbat bisita egingo dituzte; hala nola, Saintes, Cognac eta zonalde hartan dauden koñak destileria bat eta hainbat monumentu bisitatuko dituzte.

Otsailaren 9tik 14ra, ostera, Chateaubernardeko 50 bat ikasle etorriko dira Oñatira. Hauendako ere hainbat bisita eta ekitaldi antolatu dituzte; besteak beste, Arantzazu, Mirandaola, Gasteiz, Bilbo eta Oñatiko hainbat enpresa eta monumentu ikusteko aukera izango dute.

*Oñatirekin senidetutako herriak*

| | | |
|---|---|---|
| **Gleibat El Fula (Sahara)** | *1994* | Eusko Jaurlaritzak bultzatutako kanpaina baten barruan: *Euskal herriak herri saharerrekin.* |
| **Zacatecas (Mexiko)** | *1996* | Cristobal De Oñatek sortutako herria da. |
| **Chateaubernard (Frantzia)** | *1999* | Hango alkatea euskalduna izateak izan zuen eraginik. |
| **Jose Paz (Argentina)** | *2000* | Jose Altube oñatiarrak sortutako herria da. |

**OÑATIK LAU SENIDE**

Lau herrirekin dago senidetuta Oñati: 1994an Saharako Gleibat El Fular-ekin senidetu zen; 1996an, berriz, Mexikoko Zacatecas herriarekin. Duela bi urte senidetu zen Frantziako Chateaubernardekin. Iaz, azkenik, Argentinako herri batekin senidetu zen Oñati, Jose Paz herriarekin, hain zuzen ere. 1999an senidetu zirenetik, harreman estua izan dute Oñatik eta Chateaubernardek. Oñatiko dantzariak, musika banda, futbol jokalariak... oñatiar asko egon dira herri horretan. Handik ere bisita ugari jaso dituzte.

Oñatiko Udalak badu horretaz guztiaz arduratzen den Senidetze batzorde bat. Alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat eta Oñatiko elkarte eta taldeetako hainbat ordezkarik osatzen dute batzorde hori. Senidetze batzordeko kide Jose Antonio Urteagak azaldu digunez, "herri hauekin senidetzeko hainbat arrazoi izan ditugu: humanitarioak, Saharakoen kasuan, historikoak, Hego Ameriketakoen kasuan, eta kulturalak, Chateaubernarden kasuan. Orain, Mexikoko beste herri batekin, Guadalajararekin, senidetzeko aukera aztertzen dihardu batzorde horrek. Izan ere, oñatiar batek sortutakoa da, Cristobal de Oñatek, hain zuzen ere.

**TXANDAREN ZOZKETA**

Joan zen astean, urtarrilaren 10ean, egin zen Txandak antolatutako zozketa. Bost sari eman ditu: 100.000 pezetako bost txartel, Oñatiko dendetan gastatzeko. Honakoak izan dira zenbaki saridunak: 10.629, 26.907, 09.523, 05.381 eta 11.465.

**ANTZUOLA**

# Igerilekuen proiektua Luis Zulaikari esleitu diote

AINTZANE IRIZAR

Antzuolako Udalak urtarrilaren 11n egindako osoko bilkuran erabaki zuen igerilekuetako proiektua Luis Mari Zulaika arkitekto donostiarrari esleitzea. Azaroan egin zen ideia lehiaketarako deialdia. Zazpi proposamen aurkeztu dituzte, eta Zulaikarena aukeratu dute. Lau hilabete ditu behin betiko proiektua aurkezteko.

Zulaikak esan duenez, Antzuolan zein beharrizan dauden ikusi beharko du lehenik, eta udalaren ideia eta proposamenak kontuan hartu proiektua egiten hasi baino lehen. Proiektua egiteko, 3.944.000 pezeta izango ditu.

Igerilekuak estaligabeak izatea ere erabaki zuten urtarrilaren 11n egindako osoko bilkuran. Hala ere, Zulaikak adierazi duenez, litekeena da etorkizunean estali nahi izatea; beraz, hori aurrez ikusi beharko dute, eta beharrezko azpiegitura proiektu honetan sartu. Igerilekuak Olaran etxearen ostean egingo dituzte.

# Zabalik



ALBERTO AGIRREAZALDEGI

## Ametsetan

**Gizarte honetan daramagun abiadurak eta arinkeriak kezkatzen nau. Badirudi atzo jaio ginela eta presaren presaz bihar edo etzi gureak egingo duela. Gure bizitza laburra da, baina ez baliogabea.**

**Ramon Saizarbitoriak dioen bezala, kezkatuta egoteko arrazoirik ez zaigu falta, baina arazo nagusiekin distraituta gaude. Badirudi bakea, burujabetasuna, langabezia, eta abar direla gure arazo nagusiak eta beste guztiak ezin direla konpondu horiek konpondu arte. Horixe konponduta ikusi nahi dudala bakearen arazoa! Eta ahalegindu ere ahalegintzen naiz.**

**Baina, eguneroko beste arazo batzuk ekarri nahi ditut gogora. Deba arroan ere abiadura da nagusi. Lastertasun Handiko Trena laster pasatuko da bertatik eta Maltzagatik Gasteizera azkarrago joateko laster egongo da bukatuta autobidea. Baina kontuz, ez noa ni abiadurari trabak ipintzera.**

**Nik Karakatetik Gorlara lasai joan nahi dut, inguruaz gozatuz, trikuharrietako arbasoak irudikatuz eta Irukurutzetan zehar Joxe Miel Barandiaranek erakutsia gogoratuz. Baina, uste dut laster ezin izango dudala nire nahia bete, parke eolikoko haize errotek zapuztuko dutelako nire ametsa.**

**Gailurretan zehar ezin badut, erreka zulotik joan nahi dut Debabarrenetik Debagoienera bizikleta gainean. Gure arbasoek erabilitako trenbidea jarraituz, erraza litzateke bigarren amets hau betetzea. Autobidearen kontua atera zutenean aukera hau eskaini ziguten, baina usteak erdiak ustel. Oraindik orain, posible zen Maltzagatik Arrasatera bizikletaz joatea trenbidetik barrena. Orain, berriz, horixe ere ezin dugu, autobidearen obrek galerazten digutelako hainbat tokitan.**

**Beraz, arazo nagusiak konpondu behar dira, noski, baina eguneroko gure bizitza xumeak sortzen dizkigunak gerorako utzi gabe. Berriz ere usteak ustel, eta ametsetan jarraitu behar!**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## Mila esker

Aurtengo Gabonetan Arrasateko herriak ez du ahaztu bere presoak falta dituela. Herriko dendariek inoiz baino diru laguntza handiagoa eman dute. Beraz, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideak-ek eskerrik beroenak eman nahi dizkiete diruz lagundu diguten dendariei. Era berean, lan hau aurrera eramaten lagundu digutenei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Baina, ezin dugu ahaztu euskal presoak etxeratzeko lana egiteke dagoela oraindik. Esku artean daukagu presoen etorkizuna, Euskal Herriak baitu hitza eta erabakia.

Euskal Presoak Etxera!

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA ETA SENIDEAK

## Arantzazu Narbaizari

Zeruan dagoena bakean laga nahi dut. Arantzazu Narbaiza andrea, zu, horren bizirik zauden hori, pixka bat zirikatuko zaitut, buruzgain eta guzti.

Nire gutuna komedia hutsa bihurtu duzu, eta prezio berean erantzuten dizut.

Aparteko soldata Donostian gastatzen duzu; primeran igarotzen duzu eguna, beste askok bezala, Donostian etxebizitza izatea gura zenuke, eta Bergarara zatoz, pozpozik.

Zu bezain zoriontsu izateko, Donostia oso ikusia daukat-eta, Italiara joaten naiz, adibidez; horrela, beste toki batzuk ere bisitatzen ditut. Italiatik bueltan, Praten lur hartu eta Bartzelonan, Gaudiren eraikinetatik gertu, ostatu bat dago, Euskaditik egiten ditudan bidaiez gozatzeko.

Gutuna amaitzeko, "Gabiriako tartamuduak" esaten zuena gogora ekarriko dut: ´Esan eziña bajaukat, baiña asmau eziña, ez´.

MARI KONTXI GARAIONDO
Bergara

## Zurekin gogoratu nintzen, aita

Aitortzen dut ez naizela, ez, elizara gehiegi hurbiltzen aspaldian.

Familiaz oso elizkoiak izanak gara, baina punta batetik bestera egin dugu, eta egia esan, bataio, jaunartze, ezkontza edo hileta batean ezean, elizak kanpotik bakarrik ikusten ditut.

Sei eta hiru urteko bikote baten aita nauzue, biak ere San Pedro elizan bataiatuak.

Gure aita zenak (Venezuelan hamaika meza zuzentzaile lanak egindakoa bera) izan zuen aukera bataio bietara etortzeko, eta bietan, meza ondoren, parrokoari zuzendu zitzaion bere etsipena adieraziz. Etsipena baino gehiago, haserrea, euskarak ez baitzuen berak amesten zuen tokirik elizkizun haietan. Mespretxatu, gutxietsi eta arbuiatua sentitu zela esan zion apaizari eliza atarian.

Urteko lehen igandean, urtarrilaren 7an, bataio eguna zen berriro San Pedron eta han nintzen lagun baten haurraren bataioan. Eta aita etorri zitzaidan burura, behin eta berriro. Bere hitzak hutsean erori eta haizeak eramanak izan balira bezala, euskarak ez zuen txandarik apaiz gazte haren ahotan.

Egia hutsa da parroko jaunak bataio aurreko ikastaroetan behin eta berriz errepikatzen diguna: bataioak jarraipen bat izan behar duela gurasoengandik. Baina, nik zera erantsiko nioke: Elizak, bere zaharkitutako mezua gaurkotu nahian dabilen honetan, ezinbestekoa duela euskarari lehentasuna ematea. Bergara bezalako herri euskaldun (teorian) baten, behintzat.

Zure hitzak, aita, gogorregiak egin zitzaizkidan gure bataio egunetan. Baina, ez orain-goan. Zure urruntasunean nik zurekin bat-egitea lortu zuen apaiz jaunak, nahiz eta hori ez izan bere asmoa.

Izango ote dira denbora hobeak?

ALATZ URRESTI
Bergara

## Arizmendiarrieta dela eta

*Euskaldunon Egunkaria*n hiru orrialde eskaini zioten Arizmendiarrieta jaunaren oroimenari, abenduaren 17an. Berau, ondo dakigunez, Arrasate Erkide kooperatiben gidaria izan zen.

Ni neu, beste asko bezala, Arizmendiarrietak aurrera eraman zuen egintzaren mireslea naiz. Soziologikoki, egintza erraldoi eta onuragarrien azalpenak edo zergatiak bilatzerakoan, berauen gidariaren tasunak ikasten dira. Horrela, bada, eskertzekoa da Lanki ikertegiak liburu batean euskaratu izana bere pentsamendua, aberriaren minik gabe jasotzea, sakontzea, nahi izanez. Jakina dugu, zer esanik ez, Arizmendiarrieta euskal hiztuna zela. Elizgizona, kristau doktrinaduna, Jainkoak doktrinarik badu, jentilki gizalegea.

Egia da erdaraz idazten zuela, garaiko sasoia zenez, kontuan izan beharrekoa inperialismo espainiarrak gogor jotzen zuela, duela, gaur egungo A ereduaren pareko aginduaz, literatura erdaldun merkatua egitate. Garaiak garai, gaur egun, zorionez, gazte asko ditugu eskolan euskarari emanak; euskal hiztunak ziren nagusi asko ere alfabetatuak dira jadanik. Baina, oraindik orain, Arizmendiarrietak gidari zuen mugimenduak (barne idatzia) erdarazko siglak ditu, MCC, eta ez dira elebidunak. MCC-ko garbigailuak erosteari utzi beharko diot, ala?

JON OTERO URIBARREN
Fontkalent

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Eztabaida

ETAk su-etena hautsi eta alderdi abertzaleen arteko gobernu akordioa pikutara joan zenetik, hauteskundeak aurreratzeko eskatzen ari dira, asteak joan, asteak etorri, PP, PSOE eta UA. Ibarretxek, bestalde, joan zen astean iragarri zuen hauteskundeak aurreratu egingo dituela, baina ez zuen argitu uda aurretik edo ondoren izango diren. Aurten edozelan ere. Bitartean, EAJk eta EAk osatzen duten gobernua legeak aurrera ezin atera ari da. Noiz arte iraungo du horrela?

# Ibarretxek hauteskundeak aurreratzea ondo ikusten duzu?

## Amore emateko tenorea heldu zaio



JUAN LUIS AZKARATE
Kazetaria

Bozketa ondorengo egunean ezer aldatuko ez delakoan nago baina, hala ere, uste dut Ibarretxe lehendakariari komeni zaiola hauteskundeak deitzea, eta lehenbailehen gainera, giro elektoralak ahalik eta gutxien iraun dezan. Gasteizko Legebiltzarrean bizkarra emanda ditu parlamentari gehienak eta aspaldi honetan ez da gai legerik txikiena ere aurrera ateratzeko. Denbora luzez eutsi dio egoera *numantino* honi, eta badirudi amore emateko tenorea heldu zaiola.

Ea horrela papagai batzuk behingoz isiltzen diren. Eta, oraingoan behintzat, lehendakariari ezingo diote leporatu ez dela mugitzen. Gertatzen da batzuk geldi-geldi daudela eta besteak, berriz, gehiegi mugitzen direla, eta musikarekin zeharo desakonpasatuak gainera. *Baile de San Vito* batek jota bizi omen dira eta.

Hauteskundeetako hurrengo eguneko kontaketak ez du korapiloa askatuko, jakina, eta EHk boto mordoxka galtzeaz gain ez dut uste beste gorabehera handirik gertatuko denik. Nola gainera Euskal Herritarrok taldeari ez omen zaion axola zenbat boto irabazten edo galtzen duen, sistemaren gainetik baitago, nonbait, ba berdin xamar jarraituko dugu alde honetatik. PP eta PSOEren arteko paktoak ere gauzak okerragotu egingo ditu (lehen biktima, Telemadrileko zuzendaria *gatazka*ri buruzko erreportaje plural bat emititzeagatik).

*Secula seculorum?*

## Ez dute konponduko egorera soziopolitikoa



MIKEL LEZAMIZ
Soziologoa

Ez dakit hauteskundeek gaur egungo mapa politikoa aldatuko duten, badirudi askorik ezetz, baina nire iritziz garbi dago ez dutela konponduko egoera soziopolitikoa. Esango nuke okertzeko arrisku handia dagoela espainiolistek irabazten baldin badute.

Makila aterata gauzak ez dira konpontzen.

Euskal Herrian arazo politikoa daukagula ez onartzea itsu egotea baino okerragoa da. Bakea benetako demokraziarekin etorriko da, ez bakarrik alderdi politikoen elkarrizketa politikoarekin, zeren alderdi batzuek ez baitute demokratikoki jokatzen herritarren asmo eta gogoekin.

Demokrazia herriaren hitza eta erabakiak onartzea da eta herri baten autodeterminazio eskubidea onartzen denean (nora joan nahi duen erabakitzeko ahalmena onartzen zaionean) orduan bukatzen da arazo nagusia, eta orduan ikusten da nortzuk diren benetako demokratak.

Adibide bat: zure familian zer egin behar duzuen zeuok erabaki beharko duzue, eta nik ezingo dut sartu zuoi etorkizuna inposatzen. Politikan: guk, euskaldunok, ezingo dugu erabaki zer egin behar duten Katalunian, Korsikan edota Quebec-en, Espainian, Frantzian edota Kanadan geratu, ala irten eta beraien estatu propioa sortu. Eurek erabaki beharko dute zer izan nahi duten, eta gure kasuan Madrilek eta Parisek uzten diguten bitartean, borroka eta sufrimendu gehiago edo gutxiago izango da urteak joan eta urteak etorri, baina barneko arazoak hor jarraituko du.

## Eta zer aurreratzen dugu?

Lehendakari izan daitekeela amesten du Redondo Terrerosek, eta lehenengo ematen duenak gogorrago ematen duela pentsatuz-edo, hauteskunde kanpainari hasiera eman diote sozialistek. Hautagaiek egin ohi duten moduan, eskaintzak plazaratzen hasi da: terrorismoarekin bukatu eta bakea ekarriko digu betiko. EAJk eta EAk ez ei dute ezer egiten biolentziari aurre egiteko. Ez duena aipatzen da zer bide erabiliko duen bakea lortzeko...

Badirudi, konstituzionalistek, azkenean, lortuko dutela aspaldi eskatzen ari direna, Ibarretxek hauteskundeak aurreratu ditzala, alegia. Udaberrian edo udazkenean, baina aurten izango dira. PPk eta PSE-EEk gobernatzeko aukera izan dezakete, baldin eta EH legebiltzarrera ez badoa. Demagun, Mayor Oreja edo Redondo Terreros, bietako bat, lehendakari ateratzen dela. Minorian gobernatuko luke eta Ibarretxe gaur egun dagoen egoera berean egongo litzateke. Zer egingo luke egoera konpontzeko? Hauteskundeak ez dira irtenbidea, egungo egoera jasanezina izan arren. Kontua ez da hauteskundeak konbokatu edo ez. Arazoa sakonagoa da eta adarretatik heltzea beharrezkoa da.

K. LARRAÑAGA
Bergara

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Ahal den guztia egiten da etxebizitzaren arazoa konpontzeko?*

# Gora eta Behera

### BEHARTSUEI LAGUNTZEN DIHARDUTENAK

Gobernuz kanpoko erakundeetan lanean dihardutenak. Esaterako, Medicus Mundi elkarteko kide Beatriz Iarza oñatiarra. Urteak daramatza El Salvadorren, eta bakarrik ezbeharren bat gertatzen denean akordatzen gara haietaz. Geure kontzientziak zuritzeko, akaso, diru laguntzaren bat eskainiko dugu, baina behartsuekin egunero lanean dihardutenen adorea azpimarratu nahiko nuke.

### IRAKEN AURKAKO ENBARGOA

Aste honetan 10 urte bete dira Iraken aurkako bonbardaketa hasi zela. Hildako mordoa izan zen gerra hartan eta hizpide izan zen geurean ere. Hala ere, gerra ondorengo enbargoak irauten du eta gerra bera baino gogorragoa bilakatzen ari da irakiarrendako.



MIREN URKIOLA
Oñati Irratiko esataria

# Koplak

## *Iparraldetik begira*

Iparraldetik begira
Argiago ageri da
Mendi arteko xoko hertsiak
Azkenik lurmentzen dira

Debagoien erdi-zeru
Elkarbizitza eredu
Anai-arreben herri izateko
Oraindik urrun gaude gu

Gure egoera gazte
Aldatu ete da hainbeste
Urtezaharretan presoen alde
Ez ateratzeko beste?

Euskalgintzaren ongarri
Gu izan ei gara sarri
Biak egiten ditugu ondo:
Eraman eta ekarri

Sosik ez denez agortu
Beharrak sortu ta sortu
Hobekuntzaren preso garela
Nork behar digu aitortu

Horiek hola esanik
Oraindik badago lanik
Gure etxea jantzi dezagun
San Salvador ahaztu barik

AITOR SARASUA

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
SAILETAKO ARDURADUNAK: Marijo Deogracias (Kultura, Denborapasa, Telebista), Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Uxue Zabaleta, Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Maddi Trutxuelo, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



MARIJO DEOGRACIAS

# Edorta Arana

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

## “Euskal Herrian saltzen diren egunkarien artean, hutsaren hurrengo da euskararen presentzia”

NORTASUNA

**“Gaur egungo gizartean, gure nortasuna eraikitzen duten hiru elementu nagusi daude: familia eta inguruko lagunen eragina, eskola eta hedabideak”**

KOMUNIKABIDEAK

**“Espainiako Estatuan, eta mundu osoan, oro har, geroago eta komunikabide gehiago gutxi batzuen esku daude”**

NOR ikerketa-taldean batzen diren Euskal Herriko Unibertsitateko sei irakaslek eta Bordeleko beste batek Hedabideak eta Euskal Herria izeneko liburua aurkeztuko dute datorren astean. Euskal Herriko egunkari, irrati eta telebistak aztertu dituzte: hedapena, albisteen eta euskararen tratamendua, lurraldetasuna eta abar. Edorta Arana (Mondragoe, 1960) da NOR ikerketa-taldeko kideetako bat. Berarekin egon gara.

ENEKO AZKARATE

**Azken urteotan EHUko Kazetaritza Fakultatean zabiltza Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Sailean, eta handik sortutako liburu bat daukagu hizpide. Hala ere, ETBn, sorreran, sei urtez jardun zenuen.**

Halaxe da, bai; lehenengo, albistegietan, eta gero, kultura saioetan. 1982an sartu nintzen ETBn; hortaz, hasierako taldekoa naiz. Neurri batean, sortzen zebilen proiektu baten sentsazioa eta oroitzapena daukat. Hainbat arlo definitzeke zeuden: lan-baldintzak, hierarkiak, zereginak...Horregatik, gure gustukoak ziren lanetan egokitzen joan ginen. Bestalde, EITBren sorrera-legean aipatzen diren bi ideia nagusiak oso barneratuta genituen; alegia, euskararen aldeko apustu mediatiko publikoa izatea eta TVEren monopolioaren ordezko aukera izatea nahi zela. Euskal Herritik eta Euskal Herrirako egindako telebista izan nahi zuen ETBk. Horretan, Telenorte edo geroago sortuko zen Telenavarrarekiko alternatiboa zen.

**EITB euskararen aldeko apustu mediatikoa zela aipatu duzu. ETB sortu eta urte gutxira, ostera, ETB-2 sortu zen.**

Hasierako ETB ez zen elebakarra. Gaztelania ere tartekatzen zuen; eguerdiko albistegia, esaterako, gaztelania hutsez egiten zuten eta pelikulek azpitituluak zituzten. Beraz, hasieratik errotuta zeuden bi hizkuntzak. Bestalde, ETB-2 sortzeahauteskunde-ikuspegitik hartutako erabakia izan zen. Baina, onartu behar da ikusle potentzial gehiago zituela erdarazko kateak. TVEri aurre egiteko, jarrera politiko baten ikuspegitik, informazioa zabaltzeko tresna bezala ulertu beharko genuke ETB-2.

**Sorrerako ETB hura eta gaur egungoa zertan ezberdintzen dira?**

Erdarazko kate bat izateak askoz ere aukera handiagoak eskaintzen ditu, jende gehiagorengana hel zaitezke. Bestalde, telebista pribatuak agertzearekin bat, ETBk komertzialtasunaren bidea aukeratu du, batez ere, bigarren katearen eskutik. Lehenengo kateak, ostera, badauka muga bat: hizkuntza, alegia. Kate horren ikusentzule potentzialak oso definituta daude eta horiei zuzendutako egitaraua eskaini beharra dauka.

**ETBko kontuak alde batera utzi eta liburuari helduko diogu. Zein izan da ikerketa-lan honen helburu nagusia?**

Euskal Herrian diren egunkari, irrati eta telebisten egoera zein den jakiteko urratsa da. Euskal Herriko komunikabideak zelako lege araupean dauden, hedabideen jabegoa zein den eta komunikabideek zer eskaintzen duten, eta zein modutan, aztertu dugu. Horrez gain, komunikabideen ikusle kopuruak ere neurtu ditugu. Euskal Herriko hedabideen egoera zein den jakiteko egokia izan daiteke liburua. Diagnostikoa egin dugu. Gero, edukiak aztertu ditugu eta aurretik geneukan ustea baieztatu da, alegia, hedabideak oso garrantzitsuak direla herri bezala daukagun nortasuna eraikitzerakoan eta birsortzerakoan.

**Zer eragin dute komunikabideek nazio-nortasuna eraikitzerakoan?**

Gaur egungo gizartean, gure nortasuna eraikitzen duten hiru elementu nagusi daude: familia eta inguruko lagunen eragina, eskola eta hedabideak.

**Eta nortasuna eraikitzerakoan komunikabideek duten garrantziaz ohartzen da hartzailea?**

Ezetz esango nuke, baina badut zalantzarik. Komunikabideak gure eguneroko bizitzan oso errotuta daude. Jende askok erosten edo irakurtzen du egunkari bat, bere etxean beti erosi izan delako; edo entzuten du irrati kate bat, amak edo anai-arrebek entzuten dutelako. Kontsumo arduragabe samarra da. Hala ere, egia da gure herria nahiko politizatuta dagoela; sarritan, ikuspegi kritiko batetik irakurtzen dugu, edo entzuten dugu, egunkari edo irratsaio bat. Gure burua bereiztu egiten dugu ematen den mezutik. Baina, hor dago arriskua: komunikabideek marrazten dute marko erreferentziala edo geopolitikoa, hau da, komunikabideek erabakitzen dute zeintzuk diren joko arauak, zer dagoen ondo eta zer ez, zer den albiste, zer pertsonaia den garrantzitsu eta abar. Horrela, albiste, pertsonaia eta tokien aipamenaren bidez sortzen dugu gure buruan mapa propio bat.

**Komunikabideen jabegoari dagokionez, Euskal Herriak badu berezitasunik?**

Espainiako Estatuan, eta mundu osoan, oro har, geroago eta komunikabide gehiago gutxi batzuen esku daude. Bestalde, multimediarako joera nabaritzen da: egunkaria duenak, telebista eta irratia ere baditu, eta badu, era berean, publizitate agentzia eta baita beste finantzazio bide batzuk ere.

Euskal Herrian antzera gertatzen da. Egunero saltzen diren 430.000 egunkarietatik, 225.000 *Correo* komunikazio taldekoak dira. Hala ere, onartu behar da azken 10 urteotan, herriaren ekimenez, hiru egunkari nazional sortu direla: *Euskaldunon Egunkaria*, *Euskadi Informacion* eta *Gara*. Euskal Herrian badaude hedabide nagusietan islatzen direnak baino iritzi gehiago. Hauek, gainera, lanerako eta sormenerako gaitasun handia dute eta komunikabide berriak sortzeko gauza dira.

**Zelakoa da euskararen presentzia hedabideetan?**

Egunkari elebidunetan, penagarria. Abertzaleak diren hedabideetan handiagoa da euskararen presentzia, baina kontuan izan behar da Euskal Herrian saltzen diren egunkarien artean, 10etik 7 ez direla abertzaleak. Hauetan hutsaren hurrengoa da euskararen presentzia. Bestalde, kualitatiboki aztertuz gero, batez ere, pisu edo garrantzi gutxiagoko sailetan erabiltzen da euskara.

**Hedabideen edukien gaineko azterketa sakona egin duzue. Zer ondorio atera duzue?**

Nagusiak diren egunkariek Euskal Herri zatituaren irudia ematen dute eta Euskal Herria Espainiako Estatu edo Frantzian sartzen dute. *El Correo*k edo *El Diario Vasco*k, esaterako, herrietako kronikak eta lantzen dituztenean, Euskal Herria desegiten dute eta ez dute Euskal Herria osotasunean lantzen; nortasun bateratzailerik gabeko herri moduan agertzen da, neurri handi batean, komunikabide horietan.

Egunkari eta telebistetan, edukiez gain, ikonoak, eguraldiaren mapak eta abar zelan erabiltzen dituzten aztertu dugu. Interesgarria da erakusten duelako komunikabide bakoitzak non kokatzen duen bere burua, ikus-entzuleria eta irakurleria. Mapen bitartez erabakitzen dute zeintzuk diren joko arauak. Eguraldiaren mapak ondo laburtzen ditu, modu argigarrian, gainerako edukien azterketa egin ondoren ateratako ondorioak.

Bestalde, Goienaren kasua adibide polita da, eskualde mailako komunikazio esparrua sortzen duelako. Tokian tokikoa errespetatuz, elementu komunak azpimarratzen ditu, beste esparru bat sortzeko. Uste dut Euskal Herrian hori egin barik dagoela eta komunikazio esparru eta egitura propioa sortzea beharrezkoa da. Hori bi modutan egin daiteke: Goienak egiten duen moduan, behetik gora, herritik eskualdera; edo alderantziz, maila orokorretik partikularrera.

# Elkoro, Etxaniz eta Zezeaga, elkarren aurka

Joan zen astean eskuz binakako txapelketa hasi zen. Aspe eta Asegarceko bi multzoetan banatuta, hamar bikote izango dira lehian martxoaren 11n finala jokatu bitartean. Debagoieneko ordezkariak ere izango ditugu txapelketan: Aitor Elkoro elgetarra eta Jokin Etxaniz eta Jose Mari Zezeaga bergararrak Aspeko multzoan izango dira. Lehen jardunaldian uberarrak bakarrik lortu zuen irabaztea, Titinekin batera, Capellan eta Elkorori Logroñon nagusituz (22-8). Etxanizek, Lasa III.arekin bikotea osatuz, Eugi eta Fe nando Goñiren aurka galdu zuen joan ze eguakitzean Larrainzarren (22-14).

EDU MENDI


IKOR KOTX


IKOR KOTX



## Aitor Elkoro

ASPEKO PILOTARIA

Hasiera txarra eman diogu txapelketari, domekan, Logroñon, Titinek eta Capellanek erraz irabazi baitziguten. Orain, Eugiren bajarekin, txapelketa zertxobait zabalduko dela uste dut eta bi partidu irabaztea nahikoa izan daiteke finalerdietara igarotzeko. Beharbada konfiantza pitin bat falta zait baina ondo entrenatzen ari naiz.

Asegarceko multzoan, teorian behintzat, Alustizak eta Elkorok agindu beharko lukete. Aspeko multzoan, berriz, beharbada Titin-Zezeaga eta Olaizola II-Berna dira bikote indartsuenak. Dena den, parekotasun handia dago.

***"Eugiren bajarekin txapelketa zabalduko dela uste dut. Bi partidu irabaztea nahikoa izan daiteke"***

## Jose Mari Zezeaga

ASPEKO PILOTARIA

Lehen partidua irabazi eta gero, finalerdietan sartzeko aurreneko pausua eman dugu. Capellanek eta Elkorok ez zuten domekan euren mailarik onena eman eta garaipen garrantzitsua lortu genuen domekan. Hala ere, txapelketa oso parekatuta dago eta asko borrokatu beharko dugu domekan Etxaniz eta Lasa III.ari irabazteko.

Hasieran Eugi eta Goñi faboritoen artean ziren eta ikusi behar zer gertatzen den Eugiren bajarekin. Haimar Olaizola eta Berna eta Alustiza eta Beloki bikoteak nire faboritoen artean dira.

***"Parekotasun handia dago. Olaizola II-Berna eta Alustiza-Beloki nire faboritoen artean dira"***

## Jokin Etxaniz

ASPEKO PILOTARIA

Lehen partiduan huts egin ondoren, hurrengoan zentratu behar gara eta domekan partidu zaila izango dugu Titin eta Zezeagaren aurka. Guri geratzen zaizkigun partiduak irabaztekotan, ikusiko da gero Eugiren bajak zenbateraino kaltea egin digun, bera eta Fernando Goñiren aurka galdu baikenuen lehen jardunaldian. Hobera egin beharko dugu zerbait egiteko.

Gure multzoan aukera gehien dituztenak Olaizola II-Berna, Titin-Zezeaga eta Eugi-Goñi bikoteak dira. Asegarcekoan Alustiza-Beloki eta Retegi-Errasti sar daiteke finalerdietan.

***"Guri geratzen zaizkigun partiduak irabaztekotan ikusiko da Eugiren bajak kalte egin digun ala ez"***

## Reyes Azkoitia

BERGARA K.E.KO PILOTA SAILEKOA



Txapelketa oso berdinduta izango zela zirudien hasi baino lehen, baina lehen jardunaldiko emaitzak ikusita ez dakit zer pentsatu, uste baino alde handiagoz irabazi baitzituzten euren partiduak hainbat bikotek.

Asegarceko koadroan, Alustizak bere lana ondo egin arren, Beloki irregularra da. Aspeko koadroan, Eugiren lesioak zerikusia izango du. Titin-Zezeaga indartsu daudela erakutsi dute. Faboritoak? Ni Retegizalea izan naiz beti eta erretiratu baino lehen txapela janztea nahiko nuke.

***"Retegizalea izan naiz beti. Erretiratu baino lehen txapela janztea nahiko nuke"***

## Iker Muruamendiaraz

PILOTARIA



Oso txapelketa orekatua izango dela uste dut. Lehen jardunaldiaren ondoren Eugi lesionatu eta gero, beharbada gauzak aldatu egingo dira baina ziur borroka handia izango dela Aspeko koadroan. Ez dut ikusten besteen gainetik dagoen bikoterik. Asegarceko koadroan Alustiza eta Beloki izan daitezke onenak baina Retegi II-Errasti eta Unanue-Ruiz bikoteak ahaztu gabe. Ruiz ondo badabil, sorpresa eman dezakete azken hauek. Bestalde, Aspeko koadroan Titin eta Zezeaga dira aukera gehien dituztenak nire iritziz.

***"Ruizek eta Unanuek sorpresa eman dezakete Asegarceko koadroan"***

## Iñaki Korta

ARRASATEKO PILOTA ELKARTEKO ARDURADUNA



Txapelketa zabala izango dela uste dut. Ez dut uste destakatzeko moduko bikoterik dagoenik, berdintasuna da nagusi. Alustizak eta Belokik oso bikote ona osatzen dute baina ikusi behar nafarrak zer nolako maila erakusten duen. Titin-Zezeaga ere kontuan hartzeko moduko bikotea dela uste dut. Eta Retegi II.a eta Errasti txakurzaharrak ditugu, beraiei irabazteko asko jokatu beharko dute arerioek, bestela jai daukate.

Asegarceko koadroa beharbada indartsuagoa da baina ikusi beharko da.

***"Retegi II.a eta Errasti txakurzaharrak dira. Asko jokatu beharko dute arerioek"***

## Iñaki Galdos

ALOÑA MENDIKO PILOTA SAILEKOA



Beti aldarrikatu izan da pilotan txapelketak egon behar direla eta aurten beste urrats bat eman da normalizaziora bidean, enpresen artean nahiko nahaste egon baita azken urteetan. Hala ere, pena da hasieratik bi enpresetako pilo tariak nahastuta ez jokatzea. Bestalde, nah ko arriskutsua iruditzen zait horren tx pelketa luzea izatea, azkenerako pilotari lesioak-eta izateko arriskua dutelako.

Eugiren lesioak ez dakit zer nolako era gina izango duen baina Elkoro, Etxaniz eta Zezeaga hor aurrean egotea nahiko nuke.

***"Txapelketa luzeegia da, pilotariak lesionatzeko arriskua dagoelako"***

Podiuma

# Antonio Merino | GIPUZKOAKO KROS TXAPELDUNA |

**Antonio Merino antzuolarrak (34 urte) Azkoitian jokatutako Gipuzkoako Kros Txapelketa irabazi zuen domekan. Urtebete lesionatuta egon ondoren, otsailaren 4an Laudion izango den Euskadiko txapelketari begira sasoi onean dela erakutsi du Merinok.**



Merinok 3. aldiz irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa. EDU MENDIBIL

**Uste baino errazago irabazi zenuen domekan?**
Horrelako garaipen bat ez da sekula erraza izaten. Kamel Ziani oriotarra ez zen Gipuzkoako txapelketan izan, baina ondo prestatutako jendea etorri zen eta guztiok sufritu genuen. Ibilbidea lokaztuta zegoen hainbat gunetan, eta beti dago arriskua ezustekoren bat izateko. Zorionez, irabazi nuen eta helmugan uste baino alde handiagoa (22 segundo) atera nion bigarren geratu zen Asier Zarraga taldekideari.

**Zuen taldea primeran aritu zen. Lehenengo hiruren artean Goierri taldeko hiru lasterkari izan zineten...**
Bai, nahiko talde apala gara, baina domekan oso ondo egin genuen korrika. Ez geneukan talde taktikarik, baina emaitza ezin hobea lortu genuen. Ibilbidea laua zen (tartean aldapa gogor bat izan arren), bederatzi kilometro ingurukoa, eta ondo ibili ginen. Gustura egin genuen korrika eta gozamena zen taldekideak nirekin batera aurrealdean ikustea.

**Kamel Zianiri irabazteko moduan zinela uste duzu?**
Oso nekeza izango nuen Kamel Zianiri irabaztea. Sekula ezin da hori jakin, baina Ziani oso sasoi onean dago eta nik urtebete eman dut lesionatuta. Dena dela, Beasaingo San Silvestreko proban berragerpena egin nuenetik, primeran ibili naiz: Beasainen zortzigarren izan nintzen; Gimnastica Uliako proban, seigarren; eta domekan hirugarren aldiz irabazi nuen Gipuzkoako txapelketa.

> **"Euskadiko txapelketan zortzi lehenengoen artean sailkatzea da nire asmoa, Espainiako txapelketarako txartela lortzeko"**

> **"Kamel Ziani falta zen domekan, eta hura egon balitz oso nekeza izango nuen irabaztea, azken urtea lesionatuta eman dut eta"**

**Zuk esan bezala, hiru aldiz izan zara Gipuzkoako txapeldun. Zein izan da hiruretatik garaipenik bereziena?**
Beharbada, azkena, dagoeneko 34 urte ditudalako; gainera, lesioa gainditu ondoren, izugarrizko ilusioa egin zidanko domekan irabazteak. Orion Diego Garciari, Zianiri eta Apalanzari irabazi nienean ere oso polita izan zen eta duela zortzi urte Arraten eskuratutako txapela ere izugarria izan zen niretako. Dena dela, asko sufritu dut azkenaldian eta emazteari eta familiakoei (amari bereziki, osasunez makal ibili delako) eskaini nahi diet garaipen hau.

**Lesioa erabat gainditu tuta dago?**
Joan zen urtean lesionatu nintzen, Elgoibarko Mugertza krosean, hain zuzen; oin azpian izan nuen lesioa, eta nahiko buruhauste eman dit. Abuztuan Sorian herri lasterketa bat korritu nuen arren, azaroa arte ez nintzen entrenatzen hasi. Pixkanaka-pixkanaka errekuperatzen joan naiz eta erritmoa eta txispa berreskuratu dut. Epe laburrean lasterketa dezentetan izan naiz eta gero eta hobeto nago.

**Mugertzako nazioarteko krosean izango zara domekan?**
Ez, joan zen urtean gertatutakoaren ondoren, hango zirkuituak beldur pixka bat ematen dit. Oso jaitsiera gogorra du. Lokatza eta lur gogorra tartekatzen dira eta ez dut arriskatzerik nahi. Hurrengo astean Lasarteko krosa jokatuko da eta hara ere ez naiz joango, ziurrenik.

**Euskadiko txapelketari begira, zer asmo duzu?**
Zortzi lehenengoen artean sailkatzea gustatuko litzaidake; horrela, martxoan Coruñan jokatuko den Espainiako txapelketarako txartela lortuko nuke. Uste dut posible dela. Bestalde, kluben arteko Espainiako txapelketa ere prestatzen ari gara.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Amalio Galan
## Boxeolaria



Amalio Galan Europako txapeldunorde izan zen.

**Amateur eta profesional kategorietan 134 borrokaldi jokatu zituen.**

**Oso borrokaldi gutxi galdu zituen.**

**30 urte zituela erretiratu zen**

Quintana de la Serena (Badajoz) herrian jaioa, Amalio Galan sei urte zituenetik bizi da Mondragoen. Gazte-gaztetatik boxeorako zaletasuna erakutsi zuen: "Lagunekin hasi nintzen boxeoan eta orduan, 14 urterekin-edo, Lolo Alvarezen agindueta ra entrenatzen ginen San Viator ikastetxean. Zaletasun handia zegoen eta Euskal Herri osoan izaten ziren boxeo borrokaldiak". Lehen borrokaldia Donostiako Anoeta pilotalekuan izan zuen. "Askotan, lanera joan aurretik, Udalaitzera igotzen nintzen eta arratsaldez bi ordu ematen nituen gimnasioan. Oso kirol sakrifikatua da boxeoa". Guztira, amateur eta profesional kategorietan izandako borrokaldiak zenbatuz gero, 134 aldiz igo zen laukira Amalio, eta horietako gutxi galdu zituen.

Soldadutzatik bueltan, profesional egin zen superluma mailan (58 kg-ra arte): "Jose Grillekin Mondragoen entrenatu ondoren, Donostian Pedro Labarbera izan nuen entrenatzaile. Urte onak izan ziren eta oroitzapen onak ditut". Europako txapelketako finala jokatu zuen 1982an, txapela defenditzen zuen Carlos Hernandezen aurka, Valladoliden: "Borrokaldia 12 ekinaldira jokatzen zen eta hamaikagarrenean bekaina ireki zidan Hernandezek. Laga behar izan nuen". Espainiako txapelketa ere bi aldiz jokatu zuen: batean, galdu egin zuen, eta bestean, epaileak borrokaldia baliogabetu zuen. Espainiako selekzioarekin internazional izan zen hainbat aldiz. Boxeolari erasotzailea zela diosku, eta behin Uko Lastra munduko txapeldunari irabazi zion.

Ezkondu eta gero, boxeoa uztea erabaki zuen, 30 urterekin. Igeltsero hasi zen lanean. Gaur, nostalgia apur batekin, boxeoak laguntza gutxi dituela eta nahiko baztertuta dagoela dio. / E. M.

> ***"Lagunekin 14 urterekin-edo hasi nintzen boxeoan. Sasoi hartan, zaletasun handia zegoen Euskal Herri osoan. Oso oroitzapen onak ditut"***



Amalio Galan • Quintana de la Serena • 1954



# Nire Pronostikoa

EMILIO MANDALUNIZ / Elgetako Txirrindulari Elkarteko lehendakaria

Beti izan naiz Retegiren jarraitzailea eta uste dut oraindik ere bere maisutasuna azaltzeko gai dela. Nagore eta Errandonearen aurka ez dute partidu erraza izango, baina txapelketako bigarren garaipena lortuko dutela uste dut. Bestalde, Logroñon jokatzean, Titinek eta Zezeagak aukera gehiago dituzte garaipena eskuratzeko. Zezeaga oso ondo ikusi dut azken partiduetan. Futbolean, Osasuna eta Realaren arteko euskal derbian, donostiarrak nagusitzea nahi nuke, Athleticekoa irabazi arren. Azkenik, bilbotarrek ez lukete arazorik izan behar Racingi irabazteko.

**Astebukaera honetako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Retegi II.a-Errasti | 22 | Nagore-Errandonea | 16 |
| B/ | Titin III.a-Zezeaga | 22 | Etxaniz-Lasa III.a | 19 |
| C/ | Osasuna | 1 | Reala | 2 |
| D/ | Athletic | 3 | Racing | 1 |

ZURE ZENTRU BERRIA
ARRASATEN
Otalora Lizentziatua, 18 behea
✆ 943 71 27 93

GAES zentru berria, entzumen arazoetan bereiztua
Deba Goienari zerbitzu osoa emateko.

DOHAINEKO txekeo elektronikoa eta
opari bitxi bat gugana inguratzen diren guztientzat.




GAES

ENTZUMEN ZENTRUA




R.P.S. N: 164/99

GAES ENTZUMEN ZENTRUA

GIPUZKOAN:

EIBAR
Bidebarrieta, 2
✆ 943 20 61 14

ERRENTERIA
Esmalteria Plaza, 7
✆ 943 51 48 11

DONOSTIA
San Martin, 21
✆ 943 42 99 58

ARRASATE
Otalora Lizentziatua, 18
✆ 943 71 27 93

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko urtarrilaren 19a

Kultura eta Aisialdia

Urtarrilaren 19tik 26ra


# Disko Jartzaileak



## Musika berrien maixuak

Ez dute musika konposatzen. Bueno, badira hori ere egiten dutenak, baina jeneralean, beste batzuen musika erabiltzen dute eurena egiteko. Ez, ez dute (beste batzuek bezala) plagiorik egiten. Besterik gabe, musika nahasten dute eta horrela doinu berriak sortzen dituzte. Gehienetan, dantzatzeko musika egiten dute. Betidanik egon dira musika jartzen ibili direnak, baina aspaldian badira saio bereziak egiten dituztenak, eta gurean ere horrelako zaleak badaude. Disc-jockey-ak dira, disko jartzaileak, alegia. Tabernak, dantzalekuak, gaztetxeak... lekua edozein izanda ere, bi pletina, bozgorailuak, anplifikadorea, diskoak, eta dantzara! /14

GOIO ARANA

Musika | Disko jartzaileak indarrean

# Disko jartzaileak: rock izar berriak

MUSIKA ELEKTRONIKOA GUSTUKO DUTEN BAILARAKO DISKO JARTZAILEAK BATU DITUGU

Musika nahasten duen pertsona da *disc-jockeya*. Jakina, gustuen arabera nahasten dituzu doinuak. Originaltasunak ere zeresan handia dauka kantuak aukeratu eta nahasterakoan". Kaiet orain dela lau bat urte hasi zen Tito, Estebe eta Beñatekin batera musika nahasten. Musika lasaia pintxatzen duela dio, techno-house, baina hard-techno doinuak atseginago omen dituzte gure inguruan. Hobbia dela dio, "nik ez dut pentsatzen ez dakit zein lekutan pintxatzea nahi dudala, leku horrek izen ona duelako. Nik hau atsegin dudalako egiten dut, eta lagunek gustatu zaiela esaten badidate, primeran".

### Aspertu arte dantza egiteko

Techno musika jartzen duten tabernak geroz eta gehiago dira gure artean ere. Argi dago modak eragina duela, baina horrelako musika jartzen duten lekuak beranduago ixten dituzte eta "jendeak tabernak ixten direnean toki horiek aprobetxatzen ditu parrandarekin segitzeko. Guztiei ez zaie gustatzen musika hori entzutea eta pintxatzen ari zarenean sumatu egiten duzu". Horixe diote DJ Orlandok (bergararra) eta DJ Kirinek (txantxikua). Orlandok techno-house doinuak nahiago izaten ditu. Kir-inek, berriz, techno-minimalista, doinu gogorragoak.



**DJ jaiak/** **Aretxabaletako gaztetxean hilero egiten dute dj jairen bat. Mikelek dioenez, "zaletasuna egon badago. Portasoleko jaietan hasi ginen horrelako musika jartzen eta geroz eta jende gehiagok du gustuko. Gaztetxean Ima Txill-aut, Txitxarra, Joseba, Gordu eta Iñigo Txanpaña bezalako dj-ak egon dira. Urtarrilaren 27an beste jai bat egingo dugu".**

### Sesioak

Arrasaten Ekaitz, Iluntz eta Etxoste tabernetan ibiltzen dira dj-ak eta baita gaztetxean, baina badira jaietan horrelako saioak antolatzen dituztenak ere. Angiozarren, esaterako, auzoko jaietan egin zuten dj jaia eta Arrasate eta Bergarako dj-ak elkartu ziren.

Aznekaldian, gainera, hainbat musika talde, euren kontzertuen ondoren jaiak jarrai dezan, dj-ak eramaten hasi dira. Jamen, esaterako, Doctor Deseo taldeak eskainitako kontzertuaren ondoren dj jaia egon zen eta Bad F-Line talde arrasatearrak Serial Number taldearekin batera eskaini zuen kontzertuan ere dj-a egon zen, Oñatiko Kir-in.

Dendetan ere hasi dira musika zuzenean jartzen. Eta Arrasateko Dotakon dendan esaterako horretan hasi dira. Hantxe aurkitu dugu Beñat. Abenduan hasi ziren techno musika saltzen eta bere ustez, "musika nahasten eta erosten denbora asko gindoazen eta Arrasaten ere zerbait egoteko garaia zela uste genuen; horregatik hasi ginen saltzen.

### Musika nondik dator?

Musika sortzaile gutxi dago gure artean. Gasteizen bi anaia daude, Kike eta Karlos, edo Phazer taldea. Baina, AEB eta Erresuma Batua dira sortzaile nagusiak, eta "musika ona lortzea zaila da. Hiriburuetara joan behar duzu edo kanpotik ekarri. Biniloa ez da erraz aurkitzen gaur egun". Adierazpen hau segituz, biniloak dj-ei esker biziraungo duela dirudi. Eta Orlandok eta Kir-inek baietz uste dute, izan ere, "ordenagailuekin musika egin arren edo CDekin pintxatzen dutenak egon arren, oraindik ez dirudi indar askorik duenik". Kir-inek dioenez, "biniloak duen soinua ez du sekula CDak izango. Compact disc-ak soinu garbiagoa dauka, baina alderik ere ez dago bozgorailuetatik ateratzen diren soinu biak alderatzean".

MARIJO DEOGRACIAS



## Dj Orlando

Jende asko elkartzen da dantzalekuetan eta han egoten diren askok ez dute atsegin techno musika. Eta nik, adibidez, ez dut gustuko *after* baten pintxatzen egotea eta jendea etortzea beste ezer ez dagoelako zabalik. Horiek ez dira dibertitzen, eta okerrago dena, ez diete uzten gainerakoei ondo pasatzen. Zera atsegin dut, jendea gustura ikustea eta eurek hori adieraztea. Hori oso polita da".

**Jam-en arituko da otsailaren 24an, aratusteetan**



## Dj Kaiet

Belarria, gustua..., dena da beharrezkoa. Nahasketak egiteko belarria behar da, hau da, erritmo bereko doinuak nahasteko entzumen ona behar da, baina gustua ere kontuan izan behar da, musika aukeratzeko orduan. Nahasketa logikoa izan behar da. Hasiera lasaia eta gogortzen joan, edo horrelako zerbai,t eta zentzu horretan konpositore lana ere egiten dugu".

**Jam-en arituko da otsailaren 24an, aratusteetan**



## Dj Kir-in

Musika sentitzen baduzu, doinu elektriko edo technoak entzutera ere hel zintezke. Kontua sentitzea da, eta entzuten duzuna barneratzea. Egubakoitz baten Oñatiko taberna baten egon nintzen pintxatzen eta taberna bete egin zen. Jendeak jakin nahia zuen; han sortuko zen giroa gertutik ikusi nahi zuen eta horregatik diot musika hau zabaldu egin behar dugula eta ezagutzera eman, jendeak uler dezan".

**Big Lie tour-aren barruan otsailaren 3an arituko da Elgetan**



## Dj Beñat

Musikaren bidez jendea animatzen duen pertsona da *disc-jockeya*; giroa sortzen duena, edozein lekutan egonda ere. Eboluzionatu egin dugu musikari dagokionez, eta bide horretan biniloak bizi iraungo du. Hala ere, ordenagailuan egindako musikak aurrera egingo du eta gu geu ere hasi gara gutxinaka ordenagailuarekin musika egiten. Gazte askoren artean zaletasuna pizten ari dela esango nuke".

**Otsailean Etxoste tabernan arituko gara Dotakoneko dj-ak**

Argitalpenak | **'Lankidetza, Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua'** liburua

# Pentsamolde arizmendietarra liburuan

**Arrasateko kooperatiba mugimenduaren sortzaile eta ideologo Jose Maria Arizmendiarrietaren pentsamoldearen eta lanaren gaineko liburua argitaratu berri du Mondragon Unibertsitateko (MU) Humanitate eta Heziketa Fakultateak.**

*Lankidetza, Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua* da liburuaren izenburua eta Lanki ikertegiaren ardurapean osatu du MUko ikasle eta irakasle talde batek; honako hauek egin dute, hain zuzen ere: Nerea Agirre, Eunate Elio, Oihana Garcia, Ainara Udaondo, Joseba Azkarraga eta Jon Sarasua.

Azken honek, Lanki Ikertegiko zuzendariak, azaldu dizkigu liburuaren helburu nagusiak: "Batetik, Jose Mari Arizmendiarrietaren pentsamoldea modu argi eta zehatzean azaltzeko oinarri didaktikoa izatea, Mondragoeko esperientzia kooperatiboaren sorrera eta izpiritua ulertzeko abiapuntu. Bestetik, pentsamolde arizmendiarrietarraren inguruko hezkuntza moduluak prestatzeko oinarrizko material izatea. Azkenik, euskaraz pentsamolde arizmendiarrietarra zabaltzea, gure hizkuntzan gai honetan zegoen hutsunea betez".



**Liburuaren egileak, Lanki taldeko kideak.**

### Joxe Azurmendiren laguntza

Lanki taldearen oinarri bibliografiko nagusia Joxe Azurmendiren *El Hombre Cooperativo* lana izan da, "beronek sistematizatu du-eta Arizmendiarrietaren pentsabidea", liburuaren egileen esanetan. Hala ere, beste hainbat iturritara ere jo dute, esaterako, haren hitzaldiak-eta jasotzen dituzten liburuxketara, edo hainbat ikasle eta lagunen testigantzetara. "Arizmendiarrietaren pentsamoldea ikuspegi didaktiko eta dibulgatzailetik, ahalik eta modu labur, koherente eta argienean" azaldu nahi izan dute egileek.

Liburuak 164 orrialde ditu eta 12 kapitulutan banatuta dago. Joxe Azurmendik hitzaurrea idatzi du eta Alfontso Gorroñogoitia Arrasateko kooperatiba esperientziaren sortzaileak, epilogoa. Liburu dendetan eros daiteke 1.200 pezetaren truke.

### Elika egitasmoaren lehen urratsa

Lan hau Elika egitasmoaren lehen urratsa da. Egitasmo honen helburua "zentzuetan oinarritutako lankide-hezkuntza" izendatu duten hezkuntzarako beharrezko materiala sortzea da. Liburua, hortaz, egitasmo zabal baten lehen zatia da, hain zuzen ere, planifikatu dituzten zazpi gaietatik laugarrena, nahiz eta argitaratu den lehenengoa izan. Materialgintza hau datozen lau urteotan landuko dute eta hainbat hizkuntzatan eta lau euskarritan argitaratuko dute: "Idatzia, ikus-entzunezkoa, azalpenetarako euskarri lagungarria eta informatikoa".

ENEKO AZKARATE




## Nire aukera

### Iñaki Olaizola
### Irakaslea eta musikazalea



Ez da erreza bat aukeratzea, hamaika lan on daude musikan eta... Hala ere, gaur eta orain bat aukeratzekotan Verdiren *Requiema* aukeratuko nuke. Klasikoetan klasikoa, baina ederra benetan.

Izugarri ona da diskoa eta hainbat arrazoi daude lan hau aipatzeko. Batetik, 100 urte betetzen dira aurten eta ospakizunak ere egingo dira 2001. urte honetan. Gainera, pasarte batzuk gure aitak ere abesten zituen eta, hori horrela izanik, zerbait berezia sentitzen dut egiten dudan entzunaldi bakoitzeko.

Obra hau mundu guztiko teatro, opera eta aretoetan ikusi ahal izan da. Benetako harribitxia.

**'REQUIEM'**
**Verdi**




IBAN ARANTZABAL

## Kaleratu berriak

**Iban Arantzabal**

LIBURUA | *Nobela*




**BAZTERREKOAK**
Xabier Aldai
Susa argitaletxea
214 orrialde

Susak narratiba sailean atera duen liburu hau hamahiru ipuinez osatua dago. Ipuin hauetan misterio handia dago ezkutaturik, baina ez nolanahiko misterioa, ez da-eta misterio harrigarri eta tipikoa, baizik eta eguneroko bizitzan adierazteko eta argitzeko hain zail bihurtzen zaizkigun arrazoi bat edo gaizkiulertu bat edo sentipen bat.

Liburu honetan gupidarik gabe idazten du Xabier Aldaik. Susaren narratiba sailean, 41. liburua.

LIBURUA | *Umeentzako*




**BOTA GORRIAK**
Karlos Linazasoro
Anaya-Haritza argitaletxea
76 orrialde

Imajina ditzakezu bota batzuk, zeintzuk amets egiten eta gauza zoragarriak bizitzen lagunduko dizuten? Karlos Linazasorok uste du fantasia eta irudimena garatzeko era bakarra irakurketa dela, beraz, posible dela ezin ukatu.

Horixe egin dezake liburu hau irakurtzen duenak. Karlosek, liburu honetako protagonistak, sekretu asko dauzka zuri kontatzeko, eta bota magiko batzuk zuri erakusteko, ze, bizi liteke amets egin barik? Maitasun ezohiko bat kontagai.

Liburuan Claudia Ranucciren irudiak ere aurki ditzakezu.

DISKOA | *Bluesa*




**ÑACO GOÑI ETA MALCOLM SCARPA**
Gaztelupeko Hotsak
2.000 Pta

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak beste pieza bat gehitu dio bere blues katalogoari. Dedikazio handiko lana da, "klasikoei omenaldi bikaina, maitasun eta sentimenduz egina", Tonky de la Peña lagun gitarristak dioen bezala,. 1991ko Cambayarako binilotik hartutako hiru zati eta beste bost Malcom eta Ñacoren obretatik hartuak, *Berriz Blues Sessions*etik lau pieza hartu dira, T. Bone Walkerren *Going Away Party*ren irakurketa malenkoniatsua ere badago Blueszaleendako, bereziki ona.

# Urtarrila: 19-26

**Edu Mendibil** | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**BERGARA**
> **Tanttaka** taldearen *Novecento. Ozeanoko pianista* antzezlana egubakoitzean, hilak 19, Novedadesen, 22:30ean.

**OÑATI**
> ***8 olivetti poetiko*** antzezlana egubakoitzean, hilak 19, Santa Ana aretoan, 22:30ean.

**ELGOIBAR**
> ***Zapatos de mujer*** opera egubakoitzean, hilak 19, herriko antzokian, 22:30ean.

**ELORRIO**
> **Los colegas de La Vega** taldearen *Ojalemos que aplausen* antzezlana egubakoitzean, hilak 19, Arriolan, 22:30ean.
> **Faemino y Cansado**ren *Visto o no visto* antzezlana datorren zapatuan, hilak 27, Elorrioko Arriola aretoan, 22:30ean.

## Musika

**ARRASATE**
> **Txistu kontzertua** Arrasate Musikalen eskutik hilaren 22an, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

**BERGARA**
> **The Explosion** eta **Sick of it all** egubakoitzean, hilak 19, Jam aretoan, 21:00etan.
> **Trut 69** eta **Kokein** taldeak zapatuan, hilak 20, gaztetxean, 22:30ean.
> **Jose Luis Etxetxipia** organistaren kontzertua zapatuan, hilak 20, San Pedro parrokian, 20:00etan.
> **Coque Malla** datorren egubakoitzean, hilak 26, Go-Jamen.
> **Helloween** eta **Blaze Bailey** datorren zapatuan, hilak 27, Jam aretoan.

**EIBAR**
> **Anje Duhalde** egubakoitzean, hilak 19, J.B. Gisasola Musika Eskolan, 22:00etan. Sarrera: 500 pezeta.

**ELORRIO**
> **King Putreak** eta **The Vientre** datorren egubakoitzean, hilak 26, Elorrioko Ateneoan, 23:00etan.

**SORALUZE**
> **Malcolm Scarpa** eta **Ñaco Goñi** eguenean, hilak 25, Gaztelupe tabernan, 22:00etan.

## Erakusketak

**ARRASATE**
> **Gurutze Mujika** margolari atxabaltarraren erakusketa Harresi aretoan, otsailaren 4a arte.
> **Gizakien lurra** gobernuz kanpoko erakundeak, Medicus Mundirekin batera, argazki erakusketa antolatu du Kultura Etxean.
> **Iñaki Bruñaren** margolan eta eskultura erakusketa Udalako Larrinetxe jatetxean, martxoa bitartean.

**BERGARA**
> **Usoa Mendikute** margolariaren erakusketa Kultura Etxean, urtarrilaren 21a arte.



> **Ane Garces** eta **Gorka Elortzaren** olioak eta lumatxoak Nahikarin.

## Lehiaketak

**ARRASATE**
> **Arrasateko Emakumeen Kontseilua**ren irudia aukeratzeko lehiaketa. Sari nagusia 100.000 pezetakoa izango da. Mondragoetar batek aurkeztutako lan onenarendako 25.000 pezetako akzesita egongo da. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da. Argibideak Arrasateko Udaleko Emakume Sailean, 943 79 09 00 eta 943 79 41 39 telefonoetan.
> **XIV. Arrasate lehiaketak:** ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irratierreportajea. Mugaeguna: otsailaren 5a. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.
> **III. Arte Plastiko lehiaketa** deitu du Arrasateko Gure-Leku tabernak. 125.000 pezetako saria emango da. Lanak otsailaren 28a baino lehenago bidali beharko dira ondoko helbidera: Gure-Leku taberna. Zarugalde, 17-behea. 20500. Arrasate.

**PORTUGALETE**
> **XV. Komiki lehiaketa.** Nahi duten guztiek, inolako mugarik gabe, har dezakete parte, banaka nahiz taldeka, hau da, gidoilariak eta marrazkigileak batera dihardutela. Gaia librea izango da eta pertsonaia originalak izan beharko dira. Bi kategoria bereiztuko dira, zuri-beltza eta kolorekoa eta errotuluak euskaraz nahiz gaztelaniaz idatz daitezke. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da. Argibide gehiago Portugaleteko Udaleko Kultura Sailean, 94 472 92 20 zenbakian.

## Ikastaroak

**ARETXABALETA**
> **Areto dantzen ikastaroa,** Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatuta. Egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izen-ematea eta argibideak Loramendi elkartean edo 943 77 09 70 telefonoan.

**ARRASATE**
> **Etxeko lanak eta ardurak gizonezkoen eta emakumezkoen artean elkar trukatzeko tailerrak**, martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:30era, urtarriletik apirila bitartean. Emakumezkoen tailerretan elektrizitatea, iturgintza, brikolajea, pintura eta automobilen banaketa landuko da eta gizonezkoen tailerretan joskintza, lisatzea, sukaldaritza eta garbiketa. Izen-ematea (2.000 pezeta) Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 telefonoan.
> **Komunikazioa eta harremanetarako** baliabideak lantzeko ikastaroa urtarrilaren 25etik aurrera, San Viator ikastolan, Udaleko Emakume Sailak antolatuta. Pepa Bojo psikologo eta sexologoak emango du. Emakume guztiei zuzenduta dago eta matrikula doakoa da. Argibideak: 943 79 09 00.
> ***Masaje bateratua*** ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga elkarteak, urtarrilaren 27tik aurrera. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.

**ELGETA**
> **Aerobikeko monitore ikastaroa,** titulu ofiziala eta homologatua jaso nahi dutenendako, Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta. Baldintzak: 16 urte beteta izatea eta eskola-graduatua edo DBHko 2. maila gaindituta izatea. Eskolak Elgetan izango dira, zapatuetan eta domeketan. Prezioa: 125.000 pezeta Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuendako, eta gainerakoendako, 135.000. Izena emateko epea otsailaren 5ean bukatuko da. Argibideak Debagoieneko kirol zerbitzuetan.

**ESKORIATZA**
> **Antzerki tailerra** Olatz Pagaldairen eskutik urtarrilaren 27tik aurrera, zapaturo, 11:00etatik 13:00etara. Izen-ematea hilaren 21a arte zabalik Eskoriatzako Kultura Etxean. Ikasle eta langabeendako, 1.000 pezeta, eta langileendako, 2.000.

**BERGARA**
> **Simon Arrieta zeramika taldeak** ikastaroa antolatu du otsailaren 5etik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, Zabalotegiko lokalean, 18:30etik 20:30era. Ikastaroak bost hilabete iraungo du. Izen-ematea (5.000 pezeta, materiala barne) urtarrilaren 27a arte zabalik. Argibideak eta izen-ematea 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefonoetan.
> **Harreman eta autoestimuaren psikologiaren** gaineko ikastaroa urtarrilaren 24tik ekaina bitartean. Ikastaroa Txema Ibrain gizarte langile, psikologo eta pedagogoak emango du. Izen-ematea Etxepare liburu dendan. Argibideak 943 76 35 99 zenbakian.
> ***Artearen historia*** izeneko ikastaroa. Irakaslea Oihana Garitano izango da. Izen-ematea Etxepare liburu dendan. Argibideak 943 76 35 99 telefono zenbakian.

## Deiak

**ARRASATE**
> **El Salvadorri** laguntza bidaltzeko kontu bat zabaldu du Medicus Mundi erakundeak: BSCH 0049 0001 59 2810016616.

**BERGARA**
> **1956**an jaiotakoen afaria urta-



ANTZERKIA

### NOVECENTO, OZEANOKO PIANISTA.

Giuseppe Tornatore zuzendariak *La leyenda del pianista en el oceano* filma egin zuen, Alessandro Bariccoren antzezlanean oinarrituta. Tanttaka antzerki taldeak antzezlana dakarkigu oraingoan. Jose Ramon Soroiz, Iñaki Salvador pianista eta Alexander Torres ditugu antzezleak. Musikak erabateko garrantzia dauka, bere bizitza osoa itsasontzi baten eman zuen pianista apartaren historia kontatzen zaigu eta.

**Noiz:** Egubakoitza, hilak 19. **Tokia:** Bergarako Novedades aretoan. **Ordua:** 22:30. **Prezioa:** 1.000 Pta.



## Margo erakusketa

**Gurutze Mujikaren margolanak**
**Mondragoeko Harresi aretoan**

Otsailaren 4a arte

rrilaren 27an Txuringo jatetxean. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Partaideak pilotalekuan batuko dira, 20:30ean. Izen-ematea: Txuringon edo 943 76 48 63 zenbakian.
> **Bergarako Orfeoiko** loteria Kutxako bulegoan kobra daiteke. Hiru hilabeteko epea dago.
> **Bergarako gaztetxean** zinema emanaldiak eguaztenero, 21:30ean.

# Jaiak



**BERGARA**
> **San Antonabat jaiak.** Bihar, zapatua, auzoko anaidiaren batzarra, 09:30ean, eta mus txapelketa Zubiberri sagardotegian, 16:00etan (izen-ematea: 1.500 pezeta bikoteko). Gauean, herri afaria Zubiberrin, 21:00etan. Domekan, hilak 21, Umore Ona abesbatzak lagundutako Meza Nagusia 11:00etan, eta eguerdiko 12:00etan herri krosa jokatuko da. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dira. Ondoren, 12:30ean herri kirolak eta dantza saioa izango dira, eta 13:00etan kaskara jokoa, umeendako jolasak eta txerri-harrapatzea. Bukatzeko, txikiteoa eta sari banaketa, 14:00etan.

**OÑATI**
> **San Anton kaleko jaiak.** Zapatuan, hilak 20, mendi bizikleta ibilaldia 10:00etan; 13:00etan, salda, eta ondoren, ardo dastaketa. Arratsaldez, mus txapelketa 16:00etan, eta ordu berean ipin kontalaria; 19:30ean, *Los Kebras* musika taldearen kontzertua. Bukatzeko, domekan, hilak 21, eguerdian meza, eta ondoren, auzoan jaiotakoen bazkaria.

# Zinema

**ARRASATE / ALAI ZINEMA**

***Planeta rojo***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena (ikuslearen eguna): 19:00, 21:30.

***Pokemon 2***
Zapatua eta domeka: 17:00.

**BERGARA / NOVEDADES**

***El sexto día***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena (ikuslearen eguna): 19:30.

***La virgen de los sicarios***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**OÑATI / SANTANA**

***El sexto día***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Rebelión en la granja***
Domeka: 17:00.

***La vendedora de rosas***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**EIBAR**
**UNZAGA**

***Al diablo con el diablo***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

***The body (El cuerpo)***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA**

***O brother!***
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

***Luna papa***
Eguena, zine-kluba: 21:30.
Egubakoitza, 26 (zine-kluba): 22:15.

**ELGOIBAR / KULTURA ETXEA**

***Santitos***
Egubakoitza, hilak 26: 22:00.

**ELORRIO / ARRIOLA**

***Besos para todos***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

***Mi perro Skip***
Domeka: 17:00.

***El verano de Kikujiro***
Astelehena: 20:15.

***El camino a casa***
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**AZKOITIA / BAZTARTXO**

***Otoño en Nueva York***
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

***El protegido***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Lázaro de Tormes***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Comida rápida mujeres activas***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Los padres de ella***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***The body (El cuerpo)***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Memento***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Al diablo con el diablo***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Los padres de ella***
Egubakoitza:17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**MIKELDI ZINEMAK**

***Abajo el telón***
Egubakoitza:17:15; 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Naufrago***
Egubakoitza:16:30, 19:15, 22:15, 1:15.
Zapatua: 16:30, 19:15, 22:15, 1:15.
Domeka: 16:30, 19:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Al diablo con el diablo***
Egubakoitza:17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 22:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Dinosaurio***
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:15.

***Los padres de ella***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Granujas de medio pelo***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Little Nicky***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Pokemon 2***
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:15.

***En una tierra salvaje***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El protegido***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMA**

***La ruta hacia El Dorado***
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

***La comunidad***
Zapatu eta domeka: 20:30, 22:45.
Astebarruan: 17:30, 20:00, 22:30.

**SAMANIEGO**

***Manuelita***
Zapatua eta domeka: 17:30.

***Corriendo libre***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

***Divertimento***
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45, 22:30.

***Así es la vida***
Egubakoitzetik eguaztenera: 19:45.
Eguena: 17:00, 19:45, 22:30.

***Cherry falls***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***El camino a casa***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.




**LA VIRGEN DE LOS SICARIOS**
**ZUZENDARIA: BARBET SCHROEDER. AKTOREAK: GERMAN JARAMILLO, ANDERSON BALLESTEROS, JUAN DAVID RESTREPO. > 13 URTE**
Fernando Vallejoren nobela autobiografikoan oinarritutako film honek harrera bikaina jaso zuen iazko Veneziako zinema jaialdian. 30 urtean kanpoan bizi ondoren, Vallejo Kolonbiako Medellin hirira itzuliko da eta mutilen burdel baten Alexis ezagutuko du. Hirian banden arteko biolentzia da nagusi, eta Alexis gazteak ez du inolako eragozpenik izango jendea hiltzeko orduan.

**PLANETA ROJO**
**ZUZENDARIA: A. HOFFMAN. AKTOREAK: VAL KILMER, CARRIE ANNE MOSS. > 13 URTE**
2050. urtean Lurra egoera larrian dago, kutsaduraren ondorioz. Dagoeneko ia ez da basorik geratzen eta gainpopulazioa ikaragarria da. Gauzak horrela, irtenbide bakarra beste planeta bat kolonizatu eta hara bizitzera joatea da. Astronauta talde bat Marte planetara joango da hantxe bizitzea posible den edo ez jakiteko. Baina, ongietorria ez da izango eurak uste zuten bezalakoa...

# Museoak

**LEINTZ GATZAGA**
> **Gatz museoa.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi: 11:30 / 12:30 / 16:00 / 17:00. Astegunetan: taldeak. 943 71 47 46.

**ELGOIBAR**
> **Makina-erremintaren museoa.** San Roke auzoa, 1. Astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era.

**ESKORIATZA**
> **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Euskal Herriko historia, historiaurrea eta etnografia. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Astelehenetan itxita. Bisitaldi gidatuak. 943 71 54 53.

**AZPEITIA**
> **Trenbidearen euskal museoa.** Julian Elorza, 8. Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era.

**BILBO**
> **Guggenheim museoa.** Abandoibarra etorbidea, 2. Martitzenetik domekara, 10:00etatik 22:00etara. Martxoa bitartean, Panzaren bildumaren erakusketa (arte minimalista).

**DONOSTIA**
> **San Telmo museoa.** Zuloaga plaza, 1. Martitzenetik zapatura, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:00etara. Bisitaldi gidatuak. Sarrera, doan.

Telebista
ugari
dago mundu zabalean,
baina
bailarakoa,
bakarra.

Goitb
Goiena Telebista

## JAIOTAKOAK

**Alaitz Mata Igarza**
Urtarrilaren 3an, Antzuolan.

**Iñaki Arzuaga Corrales**
Urtarrilaren 5ean, Oñatin.

**Enea Borrego Aldai**
Urtarrilaren 7an, Aretxabaletan.

**Mikel Migura Sanchez**
Urtarrilaren 8an, Elgetan.

**Maialen Verguizas Arroitajauregi**
Urtarrilaren 9an, Bergaran.

**Ainhoa Mateos Estrella**
Urtarrilaren 10ean, Oñatin.

**Aitor Garitaonandia Prieto**
Urtarrilaren 10ean, Bergaran.

**Alex Barragan Rodriguez**
Urtarrilaren 11n, Bergaran.

**Ander Garcia de Kortazar Perez**
Urtarrilaren 12an, Oñatin.

**Igor Salgado Lechuga**
Urtarrilaren 15ean, Oñatin.

## HILDAKOAK

**Faustino Diez Padilla**
Bergaran, urtarrilaren 11n,
74 urte zituela.

**Ana Maria Calero Garcia**
Arrasaten, urtarrilaren 13an,
76 urte zituela.

**Teodora Astigarraga Aldazabal**
Oñatin, urtarrilaren 14an,
94 urte zituela.

**Antolin Araiztegi Senosiain**
Oñatin, urtarrilaren 14an,
87 urte zituela.

**Martin Murua Mendizabal**
Bergaran, urtarrilaren 15ean,
53 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Mariano Gil Villanueva** eta
**Miren Garbiñe Etxabe Istillart,**
urtarrilaren 13an, Arrasaten.



**Enar Lopez Baldazate** atxabaltarra, **Nekane** amarekin, atxabaltarra hau ere. Aita, **Jose Mari,** atxabaltarra da. Enar urtarrilaren 11n jaio zen Arrasateko ospitalean eta 2,700 kilo pisatu zuen.



**Laida Del Rio Sanchez** mondragoetarra urtarrilaren 11n jaio zen Arrasateko ospitalean eta 2,950 kilo pisatu zuen. Argazkian, **Ana** amarekin. Mondragoetarra da Ana, eta aita, **Jesus Mari,** legazpiarra da.



**Irati Samaniego Rebanal** eta aita, **Jose Angel.** Oñatiarrak biak. Irati urtarrilaren 9an jaio zen Arrasateko ospitalean. Ama **Dori** da, oñatiarra hau ere.

**Zure lagun edo senitartekoren bat ezkontzekotan badago eta zoriondu nahi baduzu, hemen duzu aukera. Ekarri bikotearen argazki bat *Goienkaria*ko erredakziora edo egoitza hauetara: *Aretxagazeta* eta *Arrasate Press*eko egoitzetara.**



**Julen Madinabeitia Arantzabal** mondragoetarra urtarrilaren 9an jaio zen eta 2,910 kilo pisatu zuen. Argazkian, **Anuska Arantzabal** amarekin. Anuska bergararra da, eta aita, **Ignacio,** mondragoetarra.

**Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.**

BERGARAN, *Berrigara*ren egoitzan, Irizar jauregian; Barrenkalea, 33an / 943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31n / 943 71 25 11

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11n / 945 44 50 22

ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan; Duranan / 943 79 86 21

URTEURRENA

### Basilisa Larrañaga Lizarralde



Lehen urteurreneko meza
egubakoitzean, urtarrilak 26,
19:00etan,
Arrasateko Parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

### Victoriano Ganboa Goroztiza



2000ko urtarrilaren 18an hil zen,
Udala auzoan, 68 urte zituenean

*Beti gurekin izan zinen;
ez zaitugu ahaztuko*

*Haren emazte, seme-alaba, biloba eta gainerako ahaideek otoitz bat eskatzen dizuete haren animaren alde eta domekan, hilak 21, 11:00etan Udalako San Esteban elizan izango den mezara etor zaitezela. Guztioi, eskerrik asko aldez aurretik.*

*Udala (Arrasate), 2001eko urtarrilaren 21ean*

URTEURRENA

### Jose Mari Azkarate Lete



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilak 21,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

### Juan Mari Mendizabal Garmendia



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilak 21,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

### Rosario Unamuno Goñi

Esteban Egurenen alarguna



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilak 21,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



## Hitz gurutzatuak

Luma

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

**Ezker eskuma**

1/ Federik ez dutenak. 2/ Izugarri. 3/ Tona. Zein. Jatorri atzizkia. 4/ Hamabi. Nafarroako bailara. 5/ Altzari-mota. Alderantziz. Gironako ibilgailuetan. 6/ Tresna edo altzari handi. 7/ Zah. Irlanda. Bat. Su. 8/ Kontsonantea. Potasioa. Botoa. Bokala. 9/ Nafarroako basoa. Oinarrizko edaria. 10/ Arraza bereko.

**Goitik behera**

1/ Fitxak gordetzeko lekua. 2/ Nork atzizkia. Barre xume. Kontsonante errepikatua. 3/ Danimarkako. 4/ Zoro. Alderantziz, Ezkerreko Mugimendu Abertzalea. Tantalioa. 5/ Altua. Aurrizkia. 6/ Zilarra. Gipuzkoako mendia. Bokala. 7/ Bat baino gehiago. Zaren horrek. 8/ Moduak. Asko. 9/ Haran sakona. Aurrizki latinoa. 10/ Modu atzizkia. Gizon zahar. Bokala.

## Bila-bila 7





## Umore giroan

David Peñalver

**EGOISTIA**

Etxian, familia artian:
- Ama, eskolan egoistia naizela esaten doste.
- Ba, kaka eurendako.
-Ez, ama, neretako.

**BULARRETAKUA**

Etxian:
- Ama, 20 urte beteta dittut. Lagako dostazu bularretakua jartzen?
- Ez!
- Jo, ama, lagaidazu, mesedez.
- Ezetz, Alfontso, ezetz!

**ITTO BIHARRIAN**

Angiozartar bat uretan ittotzen:
- Soka bat, soka bat! Soka bat! SOS

Elgetar batek ikusi eta:
- Hau dok tipua hau, ittotziakin nahikua ez eta bere burua urkatzia nahi...

**MILLIOIKA TXINDURRI**

-Hi, badakik zergaittik jaiotzen dien millioika txindurri urtian?
- Ez, zergatik ba?
- Eurendako kondoirik ez dalako asmau!

**AMAMA HIL DA**

Tabernan:
- Hi, badakik zelan esaten daben euskaraz ikasten dihardauan afrikano batek "la abuela ha muerto comiendo gambas"?
- Amamaganbatxungajandajunda.

## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



### Zein da bailarako herri txikiena?

Bailarako herrietan bizilagun gutxien dituena zein den galdetuko bagenu, denok asmatuko genuke, seguruena. Gatzaga da. Baina, lurrez txikiena zein den galdetuz gero, asmatuko ote genuke. Ondorengo hiruretako bat da. Zein?

- Elgeta?
- Leintz Gatzaga?
- Aramaio?

**Erantzun zuzena:** Leintz Gatzaga. 14,7 kilometro koadro ditu; Elgetak, 17, eta Aramaiok, 80,5.

### Soluzioak



**Ezker eskuma**

1/ Fedegabeak. 2/ Ikaragarri. 37 T. Nor. tar. 4/ Xll. Aezkoa. 5/ Armairu. Ig. Tramankulu. 7/ Eire. I. Gar. 8/ Ga. K. Boza. E. 9/ Irrati. Ura. 10/ Arrazakide.

**Goitik behera**

1/ Fitxategia. 2/ Ek. Irri.Rr. 3/ Danimarkar. 4/ Ero. AME. Ta. 5/ Garaia. Biz. 6/ Ag. Ernio. A. 7/ Batzuk. Zuk. 8/ Erak. Ugari. 9/ Arroila. Ad. 10/ Ki. Agure. E.

## Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Lantokian, beharbada, arazoak izango dituzu, eta ondo etorriko zaizu daukazunari garrantzia emateko. Amodio kontuetan despistatu samar zabiltza. Argi ibili eta ireki bihotza, gauzek hobera egingo dute eta.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Urdaileko arazoak izan ditzakezu; hortaz, kontuz betekadekin, oso jatuna zarela badakigu eta. Astean barrena gogotsu ibiliko zara eta erosketa asko egingo dituzu, gastu txikiko erosketa ugari.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Osasuntsu, baikor eta kementsu zaitugu. Harremanetarako aste aproposa izango da eta inguruko guztiekin hartu-eman ona izango duzu. Baina, kontuz, ez zaitez saltoka hasi, ez da horrenbesterako eta. Zure ideia gatzdunek bat baino gehiago beldurtuko dute.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Galduta ibiliko zara, eta gerta liteke giltzak etxean ahaztea ere. Adi ibili sakelako karterarekin, batez ere jende asko dagoen tokietan. Janzkerak eta berba egiteko moduak arazoak ekarriko dizkizute.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Hitza da zure indarra. Elkarrizketa erabili eta dituzun arazoak lagun leialei konta iezazkiezu. Lagun artean bidaiaren bat egitea ondo etorriko zaizu. Onuragarria izango da, ziurrenik.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Ederrak izango dira ondorengo egunak. Samurtasun uneak aurkituko dituzu, batez ere lagun aproposa aurkituz gero. Poltsikoa zaindu beharko duzu eta, etxean geratu beharra izango duzu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Lankide eta lagunekin eztabaidatu nahi ez baduzu, argi ibili gero! Gogoetarako egunak izan daitezke, baina ondo etorriko zaizkizu ondo apobetxatzen badituzu. Ez zara bakarrik egongo, lagunek elkartasuna adieraziko dizute.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Negozioetan arreta handiz ibili; egitasmo berriak lupaz aztertu beharko dituzu. Baina, sakon aztertuz gero, aberasgarriak izango dira. Amodiozko harreman berri baten atarian zaude, izan ausarta, bestela betiko galduko duzu aukera.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Gorputzak "martxa" eskatzen badizu ere, hausnarketarako eta ikasteko egunak izango dira. Bidaiatzea astuna gerta dakizuke, garraio publikoa edo norberaren autoa erabiliz gero.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Bikotekidearekin harremanak oso garrantzitsuak izango dira. Bestalde, aldaketa beharrezkoa duzu eta astia izanez gero, aprobetxatu mendira joateko edo gertuen duzun parke batera hurbildu eta paseatzeko.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Sormenerako egun oparoak izango dira eta zorteko izango zara. Badaezbada ere, loteria eros ezazu. Baina, kontuz, arretaz ibili eta burura etortzen zaizun guztia ez ezazu bota; arrisku egunak izango dira zuretako.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Amets biziak izango dituzu eta bizipen arraro samarrak ere. Arazoak izan ditzakezu anaia nagusiarekin, bere pentsamoldea inposatu nahi dizu eta. Hartu lasai eta trankil zaitez.

## Altxorrak | Lezetxiki kobazuloa

Ubane Madera






Lezetxikiko aztarnak arakatzen: ezkerrean, 1967ko indusketa kanpaina. Eskuman, 1999koa.

# Lazetxikiko kobazuloaren aztarnak eta leiendak

**Garagartzako Lezetxikiko kobazuloak euskal historiaurreko aztarna baliotsuak gordetzen ditu magalean. 1956. urtean On Joxe Miel Barandiaranek lehenengo indusketa egin zuen. Orain, Aranzadi elkartearen babesean eta Alvaro Arrizabalaga arkeologoaren gidaritzapean, urtero jende gaztea ibiltzen da lanean Lezetxikin.**

## Historia kronologikoa

| | |
|---|---|
| **1927** | Jauregiberri mondragoetarrak aurkitu zituen lehen aztarnak. Aranzadi elkartea, On Joxe Miel Barandiaranen bitartez, han lan egiteko asmoekin hasi zen. |
| **1936** | Gerra Zibilak eten egin zituen Lezetxikirako egitasmoak. |
| **1956** | On Joxe Miel Barandiaranek eta bere lantaldeak Lezetxikin hasi zituzten indusketa lanak. |
| **1965** | Neanderthal aroko emakume baten besahezurra aurkitu zuten; bederatzi metro barrura egiten, "Leibar" izeneko kobazuloa agertu zen, gizaldietan lur azpian egon zena. |
| **1968** | On Joxe Mielek aztarnategiko lanak bukatu zituen. |
| **1995** | Aranzadiren babesean, berriro ere indusketa lanak hasi ziren, Alvaro Arrizabalaga arkeologo oñatiarraren zuzendaritzapean. |

Barandiaranek eta bere lantaldeak Neanderthal garaiko emakume baten besahezurra eta bi hagin aurkitu zituzten Lezetxikin. Jakitunek diotenez, orain dela 120.000 eta 35.000 urte artean bizi izan zen besahezurraren jabea. Euskal Historiaurrearen aztarnarik garrantzitsuenak dira. Garagartzako inguru honek duela 100.000 urteko geruza arkeologikoak gordetzen ditu.

### Hamar urtez Arrasaten

Neanderthal gizakia 5.000 urteren buruan desagertu zen, baina honen ondorengoa ere, Cro-Magnon gizakia hain zuzen, Lezetxikin izan zen. Talde txikietan bizi zen orduan gizakia. Sei, zazpi, zortzi, eta gehienez jota hamalau lagun ibiltzen ziren talde bakoitzean, Lezetxikikoan kasu. Nomadak ziren eta ehizaren arabera aldatzen zuten bizitokia.

### Lezetxikiko elezaharra

On Joxe Miel Barandiaranek izan zuen betarik inguruan bizirik zirauten tradizio eta elezaharrak jasotzeko. Hona 1980.ean argitaratuta, Lezetxiki eta Kobaundi izenpean jaso zuena: "Lezetxiki eta Kobaundi dira Arrasate-Garagartzako Bostate mendi alboan dauden bi arpe. Bata bestearen gainean. Bien artean beste arpetxo bat: Laminen-eskaratza. Leen-aroetako aztarna asko agertu ditugu or, batez ere lehengo arpean. Emen bizi izan dira gizakiak, Mustier-arotik asita geroztiko aldietan.

Garagartzako lagunak diguteñez, lamiñen bizilekuak izan omen dira leize oriek. Ara emen zer dion esaunda batek. Garagartza-Korrioneko motil gazte batek, Kobaundi-inguruan zijoala, leiza atekan neskatilla eder bat ikusi omentzuan eta berarekin itz egin eta beragaz itxutu. Baita biak ezkon-itza elkarri eman ere; baiñan leenik neskatxaren adina motillak asmatzekotan, motillak bere auzoko andra zaar bati galdetu eta Kobaundiko neskatilla ederrak zer adin ote zuan. Andra ori, Kobaundi-aldera juan, eta an, arpe aurrean, atekari atzealdea emanaz, makurtu eta, bere anka bien artetik burua atzeruntz aterata, arpeari begira jarri. Badator ango neskatxa eta, aurrean alako ikusgarria arkitzean, arriturik dio: `nere biziko eun eta bost urte auetan ez det olakorik ikusi´. Andrea bereala itzuli omentzan Karrionera eta motillari esan Kobaundin entzun zuana. Orduan neskatillaren adina azaltzen dio motillak berari, ustez eta ala ezkontzen al zirala. Baiñan motillaren amak dio semeari: `begira leenik nolako oiñak dituan arpeko neskatilla orrek´. Arpera juan eta motillak ikusten dizkio oiñak neskatxari eta gero amari dio: `Kobaundiko neskatxaren oiñak aatearenak bezalakoak dira´. Orduan amak: `Ori ez dek gizakia, lamiña baiño; orrekin ezin ezkontzen al aiz´. Motillari bere barruna arrunt belundu omen zitzaion eta gaixotu; baita laster ill ere. Arpeko lamiña Korrionera, gaubela egitera, jetxi omen zan eta, intxaurraren azaletik atera zuan maindire batekin bere maitearen soina estali. Illa elizkizunetara eta ehortzera zeramakiela, lamiñak ere lagundu oemen zion Garagartzako elizateraño. Andik bere arpera gero, negar da negar". (Xabier Larrañagak *Deba haraneko historiaurrea* liburuan jasoa).



## Ardoaren txokoa

Mikel Garaizabal / Sumelierra eta enologoa

# Arabako Errioxa

## MUNDUKO LURRALDERIK ONENETARIKOA

Arabako Errioxa ardoa ekoizteko munduko lurralderik onenetarikoa dela esan dezakegu. Bere lurrarengatik, klimatologiarengatik, barietatearengatik... eta, zergatik ez, euskaldunok gauzak ondo, eta onak, egiten ditugulako.

Errioxako jatorrizko izendapenaren barruan dago Arabako Errioxa. Errioxak hiru azpilurralde ditu: Errioxa Altua, Errioxa Baxua eta Arabako Errioxa, hain zuzen ere. Arabako lurralde hau 15 herritan banatua dago. Guztira, 11.500 hektarea mahatsondo hartzen ditu. Lurraldearen iparraldean Toloño (edo Kantabria mendikatea) dago. Hegoaldean Ebro ibaia dauka. Bi ezaugarri hauek oso garrantzitsuak dira, eta eragin zuzena dute ekoizten den ardoaren ezaugarrietan eta kalitatean.

Lurraren %95 buztin kalkareoa da. Lur mota hauek urteko ardo egokiak eta ardo gorpuzdunak ematen dituzte, estraktu askokoak. Hauek oso egokiak dira ardoak kupelan zahartzeko. Lursail txiki eta ondulatuak dira.

Arabako Errioxako altitudea eta latitudea ikusita, klimatologia zoragarria da mahatsond endako. Bi arrazoirengatik: maha tsondoaren kokapenarengatik eta haizearengatik. Klima medite rraneoa, atlantikoaren eragina rekin. Haize hauek beroa daka te uda partean, euri apur bate kin, eta negu gorriak eta hotzak

Arabako Errioxan barietate autoktonoak erabiltzen dituzte Esan beharra dago, era berean Kontseilu Arautzaileak barieta te esperimentalak sartzea laga tzen duela, %5. Jeneralean, atze rriko barietateak erabiltzen ditu te fase honetan. Gogorat beharra dago, Arabako Errioxa ko barietateak hauek direla: be tzetan, goiztiarra, garnacha, gra ciano eta mazuelo. Zurietan, viu ra, garnacha zuria eta malvasia



## ZURE GALDERA

# Urteko lehen ardoak kalean dira dagoeneko. Zelakoa izan da aurtengo uzta?

Lehenengo eta behin, zehaztu beharko genuke zer lurraldetako mahats bilketari buruz galdetzen duzun, desberdinak direlako lurralde bakoi tzeko mahats bilketak, bakoitzak klimatologia berezia duelako. Ara bako Errioxako eraginarengatik, uste izatekoa da Arabako Errioxako mahats bilketari buruz galdetzen didazula. Leku guztietan bezala, dene tarik dago: gauza onak egiten dituztenak eta lana txarto egiten dute nak. Zorionez, gaur egun, gero eta gehiagok egiten dute lan ona.

Edozelan ere, mahats kopuru handia bildu da aurten Arabako Errioxan eta urteko lehenengo ardoak kalean dira dagoeneko. Beze rook dugu hitza.

Zuek irakurleok ere egin ditzakezue galderak. Zuen kezkei erantzuteko naukazue. Bidali galderok honako helbide hauetako batera: goienkaria@goiena.com edo Barrenkalea, 33 20570 Bergara.

# Goiena Telebista

## Telebegi

### *Odola*

Behiak. Uste dut orain arte behien gaineko irudi nahiko bukolikoa nuela. Behia zelaian, lasai-lasai, belarra jaten, txahala ondoan zuela. *Behi zoroen* gaitza albistegietan eguneroko ogi bihurtuz joan den neurrian, behia kolore gorriarekin, edo zehazki esanda, odolarekin, lotzera pasatu naiz. Gehienetan, *behi eroen* gaineko albisteak honako irudiekin lagunduta eskaintzen dizkigute telebistek: okela zati handiak zintzilik, harakina labana zorrotz batekin okela mozteko prest, okelari odola dariola, edo txarragoa oraindik, hildako behiak bata bestearen gainean usteltzen. Oso gutxitan ikusten da behia zelai orlegi batean jaten; zenbatetan ikusi dugu pertsonaren bat bapo-bapo okela jaten? Herritarrengan kezka pizten duten albisteak kolore gogorrez janzten baditugu, hobeto. Lehen, behiez nuen irudi bukolikoaren atzean, orain aipatutako guztia ere egongo zen, baina telebistan odolarekin jantzitako albisteek gehiago saltzen dute, horren dudarik ez dut. Beste hainbeste, kolorea sar dezaketen komunikabideetan ere. Ikustekoak ziren *behi eroen* testak egiten hasi eta hurrengo egunean egunkariek argitaratu zituzten lehen orriak. Egunkaria eskuetan hartu eta odol tanta bat eskuetan jaustea baino ez zen falta.


Maria Agirre

## Mahaiari bueltan

Eguaztenean, 21:05ean

### Baserri mundua aztergai



Monika Belastegi bergarararrak aurkezten duen mahainguruak gaur-gaurko gaia izango du aztergai datorren eguaztenean. Baserri munduak ba ote du etorkizunik? Galtzen dabilen bizimodua ote da?. Galdera horiei eta beste batzuei erantzuten saiatuko dira *Mahaiaren Bueltan* saioan. 21:05ean izango da, eguaztenean, ohi bezala.

## Hamaika magazin-eko Ikatz lehiaketa

Sari banaketa

### Sari potoloa eskura

Joan den astean egin zen Ikatz argazkidendak *Hamaika Magazin* saioan bultzatutako lehiaketaren sari banaketa. Puri Otxoa, Lander Abarrategi, Gemma Galdona eta Txaro Pagaldaik, hamar mila pezetako errebelatu bana egiteko aukera irabazi zuten. Sari potoloa berriz, Marije Ibabe mondragoetarraren eskuetara joan zen. Reflex kamera bat irabazi zuen Marijek. Argazkian ikusi dezakezuenez, Marije pozik. Zorionak!



GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Urtarrila: 19-26

| EGUBAKOITZA 26 | ZAPATUA 27 | DOMEKA 28 | ASTELEHENA 29 | MARTITZENA 30 | EGUAZTENA 31 | EGUENA 1 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30: **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete** | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, Alkatearekin berbetan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Asteko saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, Alkatearekin berbetan, Sarrera doan, Soinuz bai, Astebete* | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Astebete** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Xeleberri** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Xeleberri** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Mahaiaren Bueltan** Baserri munduaren etorkizuna | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Mahaiaren bueltan** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:00 **Sarrera doan**<br>21:30 **Soinuz Blai** |

## Barruko kontuak

### EGUERDITAN, KONTSUMOA GOITBn

Kontsumoari eskainitako tarte berezia emango du aurrerantzean GOITBk eguerdietan. Albiste aurrerapenaren ondoren izango da, 13:40etan gutxi gorabehera.

Lauren bat minutuko bideo sortak osotzen du tarte hau. Bertan, kontsumoarekin zerikusia duten gaiak aztertuko dituzte, etxebizitzen akatsak, hipoteka eta maileguak, aseguruak...

### GOITB REALA-ATHELTIC DERBIAN

Zuetako askok ikusiko zenuten, GOITBk arreta berezia eskaini zion eta joan den igandeko derbiari. Bertan izan genituen Gorka Etxabe kazetaria eta Andoni Goiti Kameraria. Giro ezin hobea... Debagoiendar ugari... Han jazotakoa behar bezala bildu eta *Goienasporten* eskaini genizuen oso-osorik.

Gauza bakarrak egin zuen huts: emaitzak. Ez ala?

## Kamera aurrean



*"Normala da Reala urduri egotea, baina oso luzea da oraindik ere denboraldia"*

**JOSEBA ETXEBERRIA** | Athleticeko jokalaria
"GOIENASPORT" (2001-15-01)



*"Gora begiratu behar dugu, beherago ezin gara egon"*

**AITOR LOPEZ REKARTE** | Realeko jokalaria
"GOIENASPORT" (2001-15-01)

# Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko urtarrilaren 19a


*Atzeskua*

MAIDER OSA

## Dabid Errasati/Aktorea

**- Umea zinela, zer izan nahi zenuen handitan?**

- Ez dut ondo gogoratzen. Ilargira heldu zirenean, 69. urtean edo, irudiak telebistan eman zituztenean halako zirrara bat sortu zitzaidan. Baina, bestela ez nuen inolako preferentziarik.

**- Nolatan aktore?**

- UBI bukatu ondoren irakasletza ikasketak egin nituen Eskoriatzan. Hori bukatuta Donostiako antzerki eskolara etortzea erabaki nuen.

**- Antzerkilaritza ala telebistako aktore nahiago?**

- Bi gauza ezberdin dira. Antzerkilaritzan aritzeak sentsazio diferenteak dakartza, jendearekin zuzeneko hartuemanean ari zarelako. Telebistakoak, ordea, adibidez *Goenkale*k zazpi bat urte daramatzala, segurtasuna ematen dizu diru aldetik. Dena den, gustukoago beharbada, antzerkia dut.

**- Askotan joaten da Dabid mezetara?**

- Ez, ez naiz askotan joaten.

**- Dabidek badu antzekotasunik Don Luisekin?**

- Abadeak onak badira, ni ere pertsona ona naizela (je,je). Bai, gauza batzuetan badute antza.

**- Telebistaz gain, esku artean baduzu beste proiekturik?**

- Don Luis Filipinetan egon zenean Dabid antzerkia egiten aritu zen Espainian Txalo antzerki taldearekin. Gero pailazo ikuskizun bat ere badugu hiru lagunek: Txoronpio, Pantxi eta Pantxo pailazoak gara.

**- *Goenkalen* lan egitearen alde on eta txarrak.**

- Beharbada zazpi urtez *Goenkale*n paper berdina antzezten aritzean, "enkasillatu" egin zaitzaketela. Baina baditu alde onak ere. Adibidez, astean birritan joanda nahikoa dut nik, eta horrela eramangarriagoa da.

**- Zer paper gustatuko litzaizuke antzeztea?**

- Pertsonaje bitxiren bat, aldaketa handia eskatzen dutenak.

**- Autodidakta ala metodoaren aldekoa?**

- Stalinovskiren metodoa antzerkia ikusteko era bat da. Hots, paperari nola aurre egin. Baina, azken batean bakoitzak lan egiteko bere modua du. Ni ikastaroetan egon naiz, Italian ere bai antzerki komikoaren eskolan...

**- Gustatuko litzaizuke zinean lan egitea?**

- Koldo Eizagirreren pelikulan egin nuen paper txikitxo bat. Hori, lan egiteko beste era bat da, *Goenkale*rekin zerikusirik ez duena.

**- Zein zaletasun dituzu?**

- Perkusioa jotzea gustatzen zait, lorezaintza ere bai, udan bizikletan ibiltzea eta mendira joatea...

**- Bizitzeko toki bat?**

- Mendian, baina hirigunetik gertu dagoen tokiren bat.

**- Zerk kezkatzen zaitu?**

- Gauza askok. Gizartea nola dagoen, inguruak, batzuk gosez hiltzen ari diren bitartean beste batzuek sobera dutela...



**"Ez naiz mezetara askotan joaten"**

**"Aktore bakoitzak lan egiteko bere modua dauka"**

**"Zinea lan egiteko beste era bat da, Goenkalerekin zerikusirik ez duena"**

**"Perkusioa jotzea gustatzen zait"**

▶ *Aretxabaletarra / 35 urte / 'Goenkale'n Don Luis*

## AIPAGARRI



**ALBERTO GARAI**
**Mondragoe / Medikua**

Arrasateko Kirol Proiektuaren medikuntzako burua izan da orain arte, baina aste honetan jakin dugu ONCEk fitxatu duela urtebeterako. Itsuen taldeko mediku burua Euskadiko Kutxako Kepa Zelaia da, eta Alberto taldeko hirugarrena izango da. Seguruen Tourra eta Giroa egingo ditu, beste lasterketa batzuen artean.



**MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA**
**Bergara / Pintorea**

ARCO Arte Garaikideko Nazioarteko Azokan izango diren Euskal Herriko galeriek euren eskaintzaren berri eman dute aste honetan. DV Galeriak Manu Muniategianpintore bergararraren lanak erakutsiko ditu, beste batzuenekin batera. Otsailean Madrilen izango den nazioarteko erakusketan, mundu osoko 29 estatutako 274 galeria izango dira.


Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express.**

Emaitzak bidean daude.

GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS

Erantzuna hemen duzu.

www.guipuzcoana.com